


#55 / 2024 AZAROA

artekak



**MITO
ESKANDINAVIARRA**

GEDAR

Ekonomia kapitalistaren eredu bat aldarrikatzeak kapitalismoa aldarrikatzea dakar –ondorio guztiekin–, eta ez, sozialdemokratek aldarrikatzen duten eran, langile-klasearen bizi-baldintzak hobetzea. Kontrara, kapitalismoaren eredu positibo bat aldarrikatzeak indartu besterik ez du egiten proletalgoak nolako miseria orokortua bizi duen balantzaren kontrako aldean, hau da, nolako kateek lotzen duten proletalgoa pobreziaren ekoizpen-sistemara. Era berean, herrialdearentzat berarentzat oparotasun politikak aldarrikatzea beste herrialde batzuetako pobrezia aldarrikatzea da. Kapitalaren metaketako estrategia nazionaletan ez da posible proletalgoaren emantzipaziorik; erdiko klase zabal bat duten herrialde oparo horietan ere, proletalgoa dago kolean, desjabetua, irudi bizi bat balitz bezala, hemen jarraitzen dugula eta erabateko emantzipaziora arte hemen jarraituko dugula erakusten

Edukia

6

EDITORIALA

Arteka

Eredu sozialdemokrata

10

KOLABORAZIOA

Mikel Bartolomé

Herrialde eskandinaviarren ekonomiaren erradiografia labur bat

16

KOLABORAZIOA

Arteka

Sua izotzaren azpian: ultraeskuinaren eta autoritarismoaren gorakada eskandinaviar herrialdeetan

32

IRITZIA

Jose Castillo

Suediaren antz handiagoa eta Greziaren antz txikiagoa izan dezagun

34

**HISTORIA
ERREPORTAJEA**

Jon Larrabide

Iraultza eta Kontrairaultza Finlandian

Eredu sozial-demokrata

Editoriala

Eredu sozialdemokrata sistema kapitalistaren asmo onak hobekien ordezkatzan dituen hori da. Zerbaitegatik ez du inoiz oinarri hartzen egungo gizartea, haren antolakuntza-eredua eta burgesiaren menderakuntza zaharkituta daudela erakusten duen eredurik. Hauek dira haren eredu handienak: gastu sozialean inbertsio handiak egiten dituzten estatuak, merkaturaren arautzeko legeak ezartzen eta ikerkuntzan eta garapenean inbertsioak egiten dituztenak, alegia, oparotasun kapitalistaren ereduak, eta ez kapitalismoaren krisi eta agorpen historikoarenak.

Ordea, eredu sozialdemokrata bere pentsamenduan bakarrik existitzen da. Bere egiten duen positibotzat jotzen duen hori, eta, bitartean, saihestu egiten du negatibotzat jotzen duena. Ilusio optikoa honakoa da: ezinezkoa dela halako banaketarik egitea, positiboa eta negatiboa ez baitira errealtatearen distortsio bat besterik, ideologia kapitalistaren nukleoan den distortsio bat. Hori horrela, *Manifestu Komunistan* deskribatzen den sozialismo burgesaren tonu berean, kapitalismoaren miseriak eten nahi ditu kapitalismoa bera deuseztatu gabe, zeinak esentziaz eta halabeharrez miseria baitakar desjabetuen klasearentzat.

Sozialdemokraziaren ustez, mantendu beharrekoak dira, besteak beste, kapitalismoaren oparotasuna eta aberastasuna –forma kapitalistan, dirutan neurtuta–, eta, aldiz, ukatu egin behar da haiek ahalbidetzen dituen, izan garunean edo diskurtsoan; izan ere, haren egiazko ukazioak berekin dakar aldarrikatzen dituzten oparotasuna eta politika sozialak desagertzea. Laburbilduz, eredu existitzearen arrazoia da herrialde gehienek ezin dutela halakorik izan; eredu negatiboari esker bakarrik da posible eredu positiboa. Sistema kapitalistan, aberastasuna pobrezia ekoizten du zentzu guztietan. Lehenbizi, pobrezia gorpuzten duen klaseak –proletalgoak– ekoizten duelako gainbalioa, hau da, aberastasun kapitalistaren forma. Bigarren, gizartea kontrako klase sozialen bi poloz osatuta dagoenez, polo antagonikoz alegia, aberastasunaren auzia erlatiboki ebatzen da, polo batentzat desjabetze eta bestearentzat metaketa moduan. Ez dago aberastasun absolutuaren pareko ezer, errege bat zentzu absolutuan errege izan ezin daitekeen moduan baldin eta ez badu berak gobernatzeko mendekorik.

Beraz, ekonomia kapitalistaren eredu bat aldarrikatzeak kapitalismoa aldarrikatzea dakar –ondorio guztiekin–, eta ez, sozialdemokratek aldarrikat-

tzen duten eran, langile-klasearen bizi-baldintzak hobetzea. Kontrara, kapitalismoaren eredu positibo bat aldarrikatzeak indartu besterik ez du egiten proletalgoak nolako miseria orokortua bizi duen balantzaren kontrako aldean, hau da, nolako kateek lotzen duten proletalgoa pobrezia ekoizpen-sistemara. Era berean, herrialdearentzat berarentzat oparotasun politikak aldarrikatzea beste herrialde batzuetako pobrezia aldarrikatzea da. Kapitalaren metaketako estrategia nazionaletan ez da posible proletalgoaren emantzipaziorik; erdiko klase zabal bat duten herrialde oparo horietan ere, proletalgoa dago kalean, desjabetua, irudi bizi bat balitz bezala, hemen jarraitzen dugula eta erabateko emantzipaziora arte hemen jarraituko dugula erakusten.

Baina hau ez da auzi ekonomikoa bakarrik. Nazio baten gailentasun ekonomikoarekin batera, haren gailentasun politikoa ere badator; hau da, gailentasuna ez da egitate-kontu bat, eskubide- eta subjektu-kontu bat baino. Gailentasun ekonomikoak etengabe inplikatzeko eta auresuposatzen duena Estatuaren gailentasuna da, hau da, nazio jakin baten eta haren burgesiaren gailentasun politikoa munduaren joko-zelaian. Izan ere, ekonomia ez dator berez emana, eta ez da gauzen arteko harremanen kontu bat. Menderakuntzak zeregin ezinbestekoa jokatzeko duen harreman sozial bat da ekonomia.

Kontua ez da sozialdemokraziarentzat erudugarria den herrialde batek –zenbaki honetan, herrialde eskandinaviarrak– besterik gabe frogatzea posible dela oparotasun-politikak hartzea erabaki ekonomiko zuzenak hartuz gero. Subjektua, hain

Baina hau ez da auzi ekonomikoa bakarrik. Nazio baten gailentasun ekonomikoarekin batera, haren gailentasun politikoa ere badator; hau da, gailentasuna ez da egitate-kontu bat, eskubide- eta subjektu-kontu bat baino. Gailentasun ekonomikoak etengabe inplikatzeko eta auresuposatzen duena Estatuaren gailentasuna da, hau da, nazio jakin baten eta haren burgesiaren gailentasun politikoa munduaren joko-zelaian

Sozialdemokraziaren ustez, mantendu beharrekoak dira, besteak beste, kapitalismoaren oparotasuna eta aberastasuna –forma kapitalistan, dirutan neurtuta–, eta, aldiz, ukatu egin behar da haiek ahalbidetzen dituen, izan garunean edo diskurtsoan; izan ere, haren egiazko ukazioak berekin dakar aldarrikatzen dituzten oparotasuna eta politika sozialak desagertzea

justu, sozialdemokraziaren alde positiboaren eta negatiboaren arteko espazioan sortzen da; objektuaren beraren barne-krisiaren egoeran sortzen da. Horrela, proletariotzaren miseriak –eta, are gehiago, herrialde pobreetako proletariotzak– eusten dio oparotasun ekonomikoari eta sozialdemokraziak aldarrikatzen duen ereduari. Eta hori erabaki bat da, miseria baita oparotasunaren ezinbesteko baldintza.

Sozialdemokraziak saihestu eta ezkutatu egiten du herrialde inperialistak direla bere eredu-herrialdeak –inperialismoaren zentzurik politikoean, hots, leninistan, eta ez zentzu akademizistan, zeinak justifikatu egiten baitu ekonomia kapitalistaren joera ia mekanikoa eta ia arau ekonomiko baten edo egitate natural baten biktima moduan aurkezten baitu subjektu erantzulea–; sozialdemokraziak ezkutatu egiten du herrialde horiek NATOren politiketan parte hartzen dutela, migrazioaren kontrako politika oso konkretuak jartzen dituztela martxan teknologizazio eta lanaren kualifikazio altuan oinarritutako eredu ekonomiko bat sostengatzeko... Ezkutatu egiten du herrialde horien historia, nahiz eta, egiaz, guztiz kontuan hartzekoa den haien egungo posizio ekonomikoa ulertu nahi bada: alegia, ezkutatu egiten du herrialde horiek babesia eman dietela erregimen totalitarioei, nazismoari eta Europar Batasunari. Ezkutatu egiten ditu haien egungo joerak –eskuintzea eta erradikalizatzea–, joko-zelai politikoa duten posizioarentzat beharrezkoak eta haren berezkoak direnak.

Laburbilduz, oparotasuna, hura gauzen ugaritasun modura ulertuta, ez da egitate ekonomiko bat. Oparotasunerako, ez da nahikoa posizio geografiko apropos bat eta baliabide natural asko izatea; gerra baten emaitza auzi meteorologiko edo lurraren kondizioan bakarrik oinarrituta azaltzea bezala litzateke hori. Auzi horiek garrantzitsuak dira, baina erabakigarria honako hau da: alde bakoitzak nolako gaitasunak dituen ezbeharrei aurre egiteko.

Kasu honetan ere, auziaren gakoa zera da, baliabide horiek noren esku dauden, ez muga geografikoen zentzuan, baizik eta geopolitikaren eta baliabide horien kontrol errealararenean. Eta sozialdemokraziak aitortu egiten du bereizketa hori, ongi jakin eta argudiatzen baitu nolako politikak hartzen diren dela kontua, nahiz eta hori, bide batez, faltsua izan, edozein politikak edonorako balio duela uste baitu. Ordea, sozialdemokraziak badauki badirela politika espezifikoko batzuk testuinguru konkretuaren arabera hartu beharrekoak, eta, halaber, jakitun da –eta horregatik ez dago absolutzio posiblerik– politika horiek proletariotzaren miseria dakartela ezinbestean, eta, bereziki, herrialde pobreenetako proletariotzarena. Aldarrikatzen dute beharrezkoa dela ekoizpen-sistemak teknologizazio eta modernizazio handiagoa izatea eta, halaber, estatuak neurri handiagoan interbenitzea prozesu horretan, munduan ekoizten den pastelaren puska

handiagoa ziurtatzeko –zeinaren osagai nagusia bereizi gabeko lan-gelatina metatua baita, hau da, langile-klaseari bere osotasunean esplotaturiko lana–.

Esan dugun moduan, bereizgarria dena ez da baliabideen banaketa geografikoa, ezpada baliabide horiek edukitzeko, antolatze eta haietat jabetzeko erabiltzen den forma. Ez da nahikoa petrolioa estatu baten barruan izatea; haren ekoizpen-prozesuaren kontrol eraginkorra behar da, hots, hartaz jabetzeko gaitasuna. Herrialde pobre batzuek baliabide natural oparoak dituzte, baina baliabideok herrialde inperialisten kontrolpean daude; hori horrela, beharrezkoa da baliabide horien jabe egiteko gaitasun politikoa, hau da, munduko ordenamenduaren eta botere politiko inperialistaren parte ezinbesteko eta garrantzitsu izatea. Hain justu, sozialdemokraziari datu horrexek egiten dio alde bere eredu ekonomikoa herrialde garaileenarekin konparatzen duenean. ●


Oparotasuna, hura gauzen ugaritasun modura ulertuta, ez da egitate ekonomiko bat. Oparotasunerako, ez da nahikoa posizio geografiko apropos bat eta baliabide natural asko izatea; gerra baten emaitza auzi meteorologiko edo lurraren kondizioan bakarrik oinarrituta azaltzea bezala litzateke hori. Auzi horiek garrantzitsuak dira, baina erabakigarria honako hau da: alde bakoitzak nolako gaitasunak dituen ezbeharrei aurre egiteko

Bereizgarria dena ez da baliabideen banaketa geografikoa, ezpada baliabide horiek edukitzeko, antolatze eta haietat jabetzeko erabiltzen den forma. Ez da nahikoa petrolioa estatu baten barruan izatea; haren ekoizpen-prozesuaren kontrol eraginkorra behar da, hots, hartaz jabetzeko gaitasuna. Herrialde pobre batzuek baliabide natural oparoak dituzte, baina baliabideok herrialde inperialisten kontrolpean daude; hori horrela, beharrezkoa da baliabide horien jabe egiteko gaitasun politikoa, hau da, munduko ordenamenduaren eta botere politiko inperialistaren parte ezinbesteko eta garrantzitsu izatea

HERRIALDE ESKANDINAVIARRREN EKONOMIAREN ERRADIOGRAFIA LABUR BAT

Testua — **Mikel Bartolomé**

Irudia — **Victoria Costa** @zeronegativodesing



Europa iparraldean, Norvegiako itsasoaren alde bietan dauden herrialde eskandinaviarretako ekonomiek (Danimarka, Finlandia, Islandia, Suedia eta Norvegia ^[1]) bi ezaugarri nagusi dituzte beren gizarte ereduaren bereizgarri: Estatuaren parte hartze handia jarduera ekonomiko orokorrean eta soldataren negoziazio kolektiborako sistema korporatibistak.

Izan ere, herrialde eskandinaviarrak, merkatuaren mekanismo kapitalisten bitartez, ongizate estatuaren garapen maila handiena lortu duten ekonomiatzat hartu izan dira hamarkadetan zehar. Horrela, izan xalotasunez edo egiaz, ekonomia eskandinaviarrak eredutzat hartu dituzte Mendebaldeko lider politiko sozialdemokratek. Izan ere, osasun laguntza, hezkuntza edo antzeko oinarriko zerbitzuak eskaintzeko Estatuak duen erantzukizun maila handiagoa da planetako beste zona batzuetan baino. Hori herrialde hauen aberastasun maila altuari esker da posible. Garapen sailkapenetako lehen postuak hartzen dituzten herrialde hauek munduko aberastasun maila handienetarikoa duten lurraldeak dira; baina zein dira bertako ekonomiaren ezaugarri zehatzak? Zertan oinarritzen dira herrialde eskandinaviarretako elementu ekonomikoak?

Testu honek galdera horiei erantzutea du helburu. Horretarako, ekonomia horien ikuspegi orokorra eta lau kategoriatan bildutako adierazleen analisi aseptikoa egingo da bertan.

Herrialde eskandinaviarrak, merkatuaren mekanismo kapitalisten bitartez, ongizate estatuaren garapen maila handiena lortu duten ekonomiatzat hartu izan dira hamarkadetan zehar

BIZI BALDINTZAK

Herrialde hauen tamaina esanguratsua ez bada ere (Europar Batasuneko BPGaren %9,2 osatzen dute soilik), herrialde eskandinaviarretako ekonomiek Giza Garapenaren Indizean (GGI) maila oso altuak dituzte^[2]. Finlandiak hamabigarren puntuazio onena du gizarteko bizi itxaropena, hezkuntza maila eta per capita errenta neurtzen dituen adierazleak. Bestalde, Norvegia, Islandia, Danimarka eta Suedia, hurrenkera horretan, munduko sei onenen artean daude.

Herrialde hauetan jaiotze gero, bizi itxaropena 82-83,5 urte ingurukoa da; aldiz, Ekonomia Lan-kidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) kide diren herrialdeetako batez bestekoak ez ditu gainditzen 80 urteak. Aldi berean, mundu mailako bizi itxaropena 72 urtekoa da. Gainera, batez besteko eskolatzeko maila 19 urte ingurukoa da herrialde hauetan, munduko altuenetariko bat.

Per capita errentari erreparatu gero, bizi itxaropenean eta hezkuntzan adina nabarmentzen ez diren arren, ekonomia hauek aberastasun maila oso handia dutela ikus dezakegu. Norvegia da bost herrialdeetan aberatsena, alde handiarekin. Erosahalmenaren parekidetasunari dagokionez, hau da, herrialdeen artean egon litezkeen bizi kostuaren aldaketak alde batera utziz, batez besteko biztanle norvegiarrak 69.000 dolar baino gehiagoko errenta dauka. Herrialde hauetako errenta baxuena, bestalde, Finlandian kokatzen da: 49.500 dolar per capita. Beste herrialde batzuekin alderatzeko, esan dezakegu Alemaniako eta Espainiako per capita errenta 55.000 eta 40.000 dolarrekoa dela, hurrenez hurren.

JARDUERA SEKTORE NAGUSIAK

Desberdintasun handiak daude ekonomia mota hauetako lan merkatu nahiz lan munduko ezaugarri konkretuetan^[3]. Suediako eta Finlandiako langabezia tasa %8 baino apur bat altuagoa da, eta, beraz, euroguneko batez bestekoa baino altuagoa. Testu hau idatzi bitartean, hain zuzen, euroguneko batez bestekoa %6,5 ingurukoa da. Danimarkako langabezia tasa %5,8koa da, eta Islandia eta Norvegiakoa munduko baxuenetarikoak dira: %3,1 eta %4, hurrenez hurren.

Aurreko atalean ikusi bezala, herrialde eskandinaviarretako ekonomiek garapen maila oso altua dute; hala ere, ekoizpen baldintza konkretuek ahalbidetzen dute hori, besteak beste, lanaren na-

Herrialde hauen tamaina esanguratsua ez bada ere (Europar Batasuneko BPGaren %9,2 osatzen dute soilik), herrialde eskandinaviarretako ekonomiek Giza Garapenaren Indizean (GGI) maila oso altuak dituzte

zioarteko distribuzioan duten posizioak eta lehiakortasun teknikoak. Izan ere, bi dira ekonomia eskandinaviarrek partekatzen dituzten ezaugarriak; lehenik eta behin, herrialde guztiek dute puntako teknologiko eta balio erantsi handiko sektore intentsibo indartsua, eta, bigarrenik, eta horren ondorioz, lanaren produktibitate handia dute. Haien industria sektorea ez bada ere Europako batez besteko herrialdeetako baino askoz handiagoa, sektoreko teknologiaren gaitasuna oso handia da. Horren eraginez, bertako ekonomiak posizio onean daude balio erantsi altua duten ondasun espezializatuak esportatzeari dagokionez.

Suedian automobilgintzak indar handia du (Volvo eta Scania enpresak gailentzen dira), baita industria farmazeutiko nahiz kimikoak ere. Hala ere, gehien gailentzen diren industria suediarrek zerbitzuen eta telekomunikazioen arlokoak dira (Spotify edo Ericsson enpresak nabarmentzen dira; bigarren hori 5G komunikazioen azpiegiturarako munduko hornitzaile handienetariko bat da).

Finlandia industria teknologikoari esker ere eza-guna da; makinaren ekoizpenak eta aparatu elektronikoaren manufaktura indar handia du. Manufaktura industria finlandiarrek, zeinak teknologia gaitasun altua duen, herrialdeko lan indarraren %30 du sol-datapean eta esportazioen erdia osatzen du^[4]. Bestetik, egurrarekin zerikusia duten jarduerak ere garrantzi handia dute, eta esportazioen proportzio handia osatzen dute.



Herrialde eskandinaviarretako ekonomiek garapen maila oso altua dute; hala ere, ekoizpen baldintza konkretuek ahalbidetzen dute hori, besteak beste, lanaren nazioarteko distribuzioan duten posizioak eta lehiakortasun teknikoak

Norvegiako Gobernuaren Pentsio Funtsak, egun, edo beste modu batera esanda, Norvegiako BPGa halako hiru baino gehixeago

Danimarkari dagokionez, bertako industria sektorea dibertsifikatuta dago. Herrialde honetan garrantzi handia dute sektore hauek: farmazia, abeltzaintza, elikagaien prozesamendua eta ekoizpen mekanikoa eta metalurgia. Izan ere, medikamentuek eta esnekiek nahiz haragi produktuek herrialdeko esportazioen ehuneko handia hartzen dute. Dena den, Danimarkako jarduera nagusia ontzigin-tzan oinarritzen da. Zehazki, ontzi handien diseinuan, ekoizpenean eta ontzioletan egiten diren konponketetan. Horrez gain, munduko potentzia handienetariko bat da itsas garraioari dagokionez, Kopenhageko portua baitago bertan, zeina Europa iparraldeko portu handienetarikoa den. Gainera, energia eolikoaren sorkuntza nahiz haize sorgailuen ekoizpena indar handia ari da hartzen azken urteetan.

Turismoa ekonomia finlandiarraren zutabeetako bat da, eta herrialdeko BPGaren %10 baino gehiago osatzen du. Bertako industriak lotura handia du baliabide naturalekin, eta arrantzan oinarritutako jarduerak hartzen dute pisua (arrainaren esportazioak), aluminioaren ekoizpenarekin batera. Horrez gain, energia berriztagarriek (geotermikoak eta hidroeletrikoak) eta finantza sektoreak garrantzi handia dute.

Norvegiaren kasua apur bat berezia da, bertako industriak aurretik aipatutako herrialdeetako ekonomietan baino indar handiagoa baitu. Aurretik aipatutakoetan, industriak BPGaren %20-24 inguru osatzen zuen (hori ohiko ehunekoak da garapen maila altua duten herrialdeekin alderatuta), eta Norvegiaren kasuan, bigarren sektoreak BPGaren %40 hartzen du. Hori horrela da petrolioaren eta gasen erauzketak pisu handia duelako. Aipatutako hori ezinbesteko sektorea da Norvegiako ekonomian, eta haren esportazioei esker sarrera ekonomiko

handiak ditu herrialdeak. Hain zuzen, Norvegia munduko zortzigarren petrolio esportatzaile handiena da, eta hidrokarburoen salmentek kanpoko herrialdeei egindako salmenten diru sarreraren erdia dakarte.

Hidrokarburoak, gainera, norvegiar Estatuen irabazien iturri oso handia dira. 2022an zerga-bilketari dagozkion marka guztiak hautsi zirenean, hidrokarburoen erauzketa industriak 123 mila milioi euroko sarrerak izan zituen (petrolio konpainia pribatuei ezarritako zergen eta jabetza publikoko enpresen irabaziei esker), BPGaren %27,4ren baliokidea dena ^[5].

Petroliotik eratorritako diru sarrerak kudeatzeko eta inbertitzeko, Norvegiako Estatuak Norvegiako Gobernuaren Pentsio Funtsa jarri zuen martxan (Petrolio Funtsa izenez ezagunagoa) 1990ean. Funts horretan 71 herrialdeetako errenta finkoan (zorren erosketa) inbertitzen da, batez ere. Egun, 1,76 bilioi (sic) dolarreko aktiboak kudeatzen ditu ^[6], edo beste modu batera esanda, Norvegiako BPGa halako hiru baino gehixeago. Horrek, kudeatutako aktibo guztiei dagokienez, munduko funts subirano handiena bilakatzen du.

Aipatu moduan, ekonomia eskandinaviarrek lanaren produktibitate handia dute. 2021. urtean, Norvegia, Danimarka eta Suedia izan ziren ELGAKo produktibitate handieneko hirugarren, laugarren eta seigarren herrialdeak: lan egindako ordu bakoitzeko 106,2 euro, 91,5 euro eta 85,6 euro ekoitzi zituzten, hurrenez hurren. Islandiak eta Finlandiak, berriz, 75,7 eta 73,6 euroko ekoizpeneko lan-produktibitatea izan zuten lan egindako ordu bakoitzeko, ELGAKo herrialdeen batez besteko produktibitatea baino askoz handiagoa (60,8 euro) ^[7].

POBREZIA ETA DESBERDINTASUN TASAK

Ekonomia eskandinaviarrek desberdintasun handiak dituzte beren mugen barruko pobrezia mailari dagokionez: egunean 6,85 euro baino gutxiagorekin bizi diren biztanleak Europako herrialde garatueta batez bestekoak baino dezente baxuagoak badira ere Norvegiar (%0,52), Danimarkan (%0,26) eta Finlandian (%0,14), Suediak gaintu egiten du batez besteko hori, biztanleriaren %1,43rekin ^[8]. Antzerako banaketa gertatzen da egunean 30 dolar baino gutxiagorekin bizi diren pertsonen kopuruaren kasuan: %6,29 dira Norvegiar, %11,32 Finlandian, %8,31 Danimarkan eta %15,18 Suedian ^[9].

Bestalde, gizarte eskandinaviarretan errenta-desberdintasunak oso baxuak direla ikus dezakegu ^[10]. Gini indizeak 26,1 inguruko balioak ditu Islandian (herrialde eskandinaviarren artean errenta desberdintasun maila baxuena) eta 28,9 ingurukoak Suedian (errenta desberdintasun mailarik handiena talde horren barruan). Horrela, ekonomia hauek desberdintasun gutxien duten munduko herrialdeak dira, aurretik Belgika, Herbehereak, Eslovenia, Eskovakia eta Bielorrusia dituztelarik soilik.

Gainera, biztanleen %10 aberatsenak jasotzen duen errenta biztanleen %40 pobreenak jasotzen duenarekin alderatuz gero, ikus daiteke bi taldeen diru sarrerak oso antzekoak direla. Horrek esan nahi duena da banaketa hori, zeinetan diru gehien irabazten duen %10ak biztanleriaren %40 pobreenak halako lau irabazten duen batez beste, nahiko banaketa berdinzalea dela ekonomia aurreratuetako errenta desberdinkeraren parametroekin konparatuta.

SOLDATAK, ZERGAK ETA FINANTZA PUBLIKOAK

Eskandinaviako batez besteko soldatak Europar Batasuneko soldaten batez bestekoa (2023an 35.000 euro inguru) baino altuagoak dira, zehazki %24,9 (43.690 euro Suedian) eta %62,3 (56.810 euro Norvegiar) artean altuagoak. Aldi berean, medianadun soldata (hau da, banaketaren 50. pertzentilean kokatzen den soldata) mendebaldeko ekonomietakoa baino altuagoa da ^[11].

Gainera, herrialde hauek antzekotasunak dituzte lan merkatuan: alde batetik, soldata negoziatzeko eredu korporatibista dute (batik bat Suedian eta Norvegiar), non sindikatu eta enpresek estatu mailan eta sektoreka negoziatzen duten. Bestalde, lan merkatu malguak dituzte, eta enpresek erraztasunak dituzte langileak kaleratzeko.

Asko esan izan da estatu eskandinaviarrek zerga-bilketarako gaitasun handia dutela. Termino erlatiboetan neurtuz gero, adibidez, BPGaren ehunekoaren baitan, biltzen dituzten zergen kopurua zertxobait handiagoa da Europako batez bestekoarekin alderaturik. Mendebaldeko gaine-rako ekonomien batez bestekoa baino altuagoak dituzte zerga-tipoak (ordaintzen den ehunekoak), izan kontsumoaren gainekoak (BEZaren kasua) izan errentaren gainekoak ere (PFEZaren kasua), baita eta horien bilketa ere.

Azkenik, esan beharra dago ekonomia eskandinaviarrek, orokorrean, superabit publiko arinak mantendu dituztela, eta, horrenbestez, gastuak sarrerak baino baxuagoak izan direla. Horregatik mantendu dituzte, Europako beste herrialdeen aldean, zor publiko maila baxuagoak (BPGaren %30 eta %55 artean, Finlandian izan ezik, zeinaren zor publikoa BPGaren %73 den).

Amaitzeko, herrialde eskandinaviarrek aberastasun handia eta desberdintasun maila txikia badute (sektore publikoak eragile ekonomiko gisa duen pisua kontuan izanda), hori ekoizpen espezializazioari eta lan banaketa internazionalan duten posizioari esker da posible. ●

ERREFERENTZIAK

- [1] Aipatzekoa da Islandia eta Norvegia ez direla EBko kide, baina bai Europako Esparru Ekonomikokoak (EEE)
- [2] Nazio Batuen Erakundea. Human Development Insights
- [3] Munduko Bankua
- [4] Observatory of Economic Complexity
- [5] Statistics Norway
- [6] Sovereign Wealth Fund Institute
- [7] OECD Compendium of Productivity Indicators 2023
- [8] Datu falta dela eta, Islandia analisitik kanpo utzi dugu
- [9] Our World in Data
- [10] Nazio Batuen Erakundea. (Desberdintasunaren arabera Giza Garapenaren Indizea)
- [11] Europako Batzordea. AMECO

SUA IZOTZAREN AZPIAN

ULTRAESKUINAREN ETA
AUTORITARISMOAREN
GORAKADA ESKANDINAVIAR
HERRIALDEETAN

Texto — **Arteka**

Imagen — **Maidier Fidalgo**



Azken hamarkadetan, eskandinaviar herrialdeak “demokraziaren, berdintasunaren eta gizarte ongizatearen” gotorlekutzat hartu izan dira. Haatik, irudi idiliko horren atzean, xenofobia eta autoritarismo joerak nabarmendu dira, zeinek mehatxatu egiten duten ustez gizarte hauek eraikitzeko erabili ziren oinarriak ahultzearekin. Lehen marjinalak ziren arren, hedatzen ari dira ultraeskuineko alderdi eta mugimenduak, eta krisian dagoen kapitalismoak inposatzen dituen eraldaketa kultural eta ekonomikoaren aurrean, gizarte sektoreak mobilizatzen migratzaileenganako beldurrari eta haserreari dei egiten dieten diskurtsoen bidez.

Erreportaje honek aztertzen du kapitalismoak sortutako tentsioek –desparekotasun gorakorra eta migrazio fluxuak– nola sustatu duten “desberdinaren” arbuioa Suedian, Norvegian, Danimarkan eta Finlandian. Hala, xenofobia eta autoritarismoa sistema kapitalistaren krisi sakonago baten sintomak dira, eta herrialde hauek ezin dira haietaz askatu. Ikusiko dugu nola eskandinaviar estatuak klase menderatzaileak tentsio hauek bere boterea finkatzeko ere erabiltzen dituen, gizartearen haserre migratzaile eta gutxiengoengana desbideratuz.

1. TESTUINGURU HISTORIKOA: ESKANDINAVIAR ONGIZATE ESTATUAREN SORRERA ETA ERALDAKETAK

Eskandinaviar herrialdeak beren ongizate estatu sendoagatik dira ezagunak. Estatu horiek XX. mendean langile aristokraziarentzat eta burgesia txikiarentzat oparotasun ekonomikoa sustatzen zuen itun sozial bat oinarritzat hartuz sortu ziren, klase horiek ekonomikoki eta politikoki Kapitalaren mendeko bihurtzearen truke. “Iraultzaren arriskua” saihesteko oso baliagarria izandako eredu hori zerga-tasa altuek eta Estatuaren interbentzio handiko ekonomiak sostengatuta zegoen; ekonomia horrek, hain justu, enplegu osoa ematen zuen, bai eta zeharkako soldatak ere, osasungintza, hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta tankerako zerbitzu publikoen bidez. Azken buruan, bide ematen zion produktu sozialaren birbanaketa zabalari, eta horrekin batera, inoiz ez bezalako kohesio soziala ekarri zuen.

1960 eta 1970 hamarkadetan zehar, kapitalismoak inoiz kontzibitutako ilusionismo espektakulurik handiena artikulatu zuen sistema horrek, pobrezia maila baxu samarrak eta gizarte mugikortasun maila altua zituena. Esan liteke munduko ongizate estaturik indartsuenak izan zirela. Hala ere, 1980ko hamarkadatik aurrera, herrialde horiek aldaketa nabarmenak izaten hasi ziren, eta kapita-

lismoaren benetako aurpegia azaleratu zen berriz. Iraultzaren mehatxua indargabetzearekin eta gerra osteko akumulazio zikloa argiki agortzearekin batera, gainbeheratzen hasi ziren ongizate estatuko oinarriak, ordurako Kapitalarentzako erabilezin bihurtutakoak.

Garai aldaketa baten sintomak markatzen zituzten denboraldi honetan zehar ezarritako erreforma ekonomikoek: pribatizazioak, desarauketak, gastu publikoaren murrizketak... Eskandinaviar herrialdeek beren eredu sozialaren zenbait alderdi mantentzea lortu bazuten ere, desberdinkeria sozial gorakorak eta lan segurtasunaren murrizketak bidea ireki zien atsekabe erreakzionarioari eta pagaburuak bilatu nahiari.

1.1 Immigrazioa eta aldaketa demografikoak

Historikoki, eskandinaviar herrialdeak nahiko homogenoak izan dira arlo etniko eta kulturean. Haatik, 1980 eta 1990 hamarkadetatik aurrera immigrazioaren gorakada nabarmena izan zuten. Hasieran, beste europar herrialdeetako langileek edo gatazketatik ihes egiten zuten langile haiek –adibidez Balkanetako Gerratik ihes egindakoei– osatzen zuten haien immigrazioa. Geroago, 2000ko urteen ostean, eta bereziki 2015eko errefuxiatuen krisiaren ostean, nabarmen handitu ziren Ekialde Ertaineko, Afrikako eta Asiako migratzaileak. “Ongizate sistema emankorreko gizarte inklusiboak” izatearen ospeagatik, eskandinaviar herrialdeak helmuga erakargarria izan dira gerran eta miserian murgildutako herrialdeetatik etorritako proletarioentzat, Irak, Somalia, Siria eta Afganistanekoentzat kasu.

Ezgonkortasun ekonomikoak eta aldaketa demografikoak, zeinak berezkoak baitzaizkio krisian dagoen Kapitalari, aldaketa kultural indartsua piztu zuten: gero eta sektore zabalagoak “mehatxu ekonomiko eta kultural” moduan pertzibitzen hasi ziren lehenago gizartearen zati handi batek “obligazio humanitario” moduan antzematen zuena. Mugimendu populistek immigrazioa “ongizate sistemarako gainkargatzen eta nazio identitatearentzako arriskutzat” hartu zuten, eta beldur horiek berehala ustiatu zituzten beren diskurtso politikoan. Horrela, tentsioek gora egin zuten herrialde horietan, nahiz eta dagoeneko 70eko hamarkadatik zailtasun ekonomikoak izaten ari ziren lan indarraren integrazio sozioekonomikoa mantentzeko.

Historikoki asilo politikan paparra atera izan zuten herrialde horietan, xenofobiarako eta arrazakeriarako hazitegi ezin hobea sortu zen, zeinak immigrazioa delinkuentzia eta langabezia igoera-

rekin lotzen dituen beti. Horrela, nabarmen geratu zen ez dela existitzen formazio sozial jakinei berezkoa zaien “izaera abegikor eta irekirik”. Asilo politika laxoak neurri iragankorrak dira, historikoki eta materialki determinatuak, eta desagertu egin daitezke haiek ahalbidetzen dituzten baldintzak desagertzearekin batera.

1.2 Ultraeskuinaren gorakada eta hedatzea

Azken hamarkadetan, eskandinaviar herrialdeetan ultraeskuineko alderdien eta mugimenduen gorakada nabarmena izan da. Lehen leku marjinala betetzen zuten arren, orain boterera heldzea, oposiziotik politika publikoetan eragitea edo masa-mugimenduak osatzea lortu dute.



1.2.1 Ultraeskuineko alderdi instituzionalak

• **Suediako Demokratak (SD):** mugimendu neonazietan jatorria duen alderdi honek bere diskurtsoa “leuntzea” eta iritzi publikoaren aurrean indar politiko zilegi bezala agertzea lortu du. Hauek dira haren narratibaren oinarriak: “suediar kulturaren zaintza”, “immigrazioa mugatzea” eta elite politikoak kritikatzeko “suediar arruntan” kezka bazter uzteagatik. Egun, Gobernua babestearen bidez, zeharkako eragina dute.

• **Finlandiarren Alderdia (PS):** “Benetako Finlandiarrak” izenarekin 1995ean sortua. 2011n lehen hauteskunde-arrakasta izan zuen botoen %19,1 lortuta. 2023an bere errekorra hautsi zuen botoen %20,1 lortuta, eta eskuinarekin koalizioan gobernuan sartu zen.

• **Norvegiako Alderdi Progresista (FrP):** zergen aurkako alderdi populista moduan hasi arren, FrP alderdiak jarrera antiimmigrazio eta nazionalista hartu du gutxika-gutxika, eta Norvegiako Gobernuko koalizioetan parte hartzea ere iritsi da.

• **Danimarkako Alderdi Popularra (DF):** Danimarkan, Alderdi Popularra giltzarri izan da herrialdeko migrazio politikaren konfigurazioan, eta alderdi tradizionalak errefuxiatuenganako eta asilo eskatzaileenganako jarrera murriztaileagoak hartzea bultzatu ditu. Gainera, hirugarren indarra da parlamentuan.

1.2.2 Ultraeskuineko mugimenduak

Eskandinaviar ultraeskuineko aurpegirik agerikoena eta ezaguterrazena ordezkatzeko duten alderdi instituzionalak gain, badira parlamentuz kanpoko mugimenduak eta alderdi politikoak ere, askoz erradikalagoak. Suedian, Norvegian, Danimarkan, Finlandian eta Islandian mota desberdineko taldekak eta mugimenduak ugartu dira azken hamarkadetan. Gehiengo politika ofizialaren periferian mantentzen da, batzuk nahita eta besteak ez dutelako hauteskunde-arrakastarik izan. Bakoitzak bere ideia partikularrak, lehentasun diskurtsiboak eta jardura-esparruak ditu.

Parlamentuz kanpoko ultraeskuineko mugimenduen eszena horretan nabarmentzen diren bi joerak neonazismo paneskandinaviarra eta immigrazioaren kontrako nazionalismo populista dira. Neonazismo paneskandinaviarrari dagokionez, bada nazioarteko antolakunde nagusi bat, aparte tratatzea merezi duena: Eskandinaviar Erresistentzia Mugimendua (NMR). Beste aktoreak estatuetan banatuta aipatuko dira.

ESKANDINAVIAR ERRESISTENTZIA MUGIMENDUA (NMR)

Eskandinaviar Erresistentzia Mugimendua (NMR) talde neonazi bat da, eskandinaviar herrialdeetan aktibo dagoena, bereziki Suedian, Norvegian eta Finlandian. Bizkarrean hildakoak zituen neonazi beterano batek 1997an sortua, arraza-ultranazionalismoa, supremazismo zuria, antisemitismoa eta antikomunismoa sustatzen ditu, estatu totalitario paneuropear eskandinaviar baten sorrera defendatuz. Multikulturalismoaren, immigrazioaren, isla-

maren eta LGTB eskubideen aurka egiten du era basatian. NMRk manifestazio publikoak antolatzen ditu, propaganda banatzen du eta biolentzia ekin-tzei lotuta dago, baita migratzaileen eta ezkerreko aktibisten aurkako erasoei ere. Finlandian debekatu izan eta AEBko Estatu Sailak Munduko Antolakunde Terroristen zerrendan sartu duen arren, NMRk erdi ezkutuan jarduten jarraitzen du. Haren antolakuntza-egitura sendoak eta sare sozialen erabilerak eskualdeko ultraeskuineko eragile arriskutsuenetarikoa bihurtzen du.



Eskandinaviar herrialdeetako parlamentuko eta parlamentuz kanpoko ultraeskuinaren mapa.

NMRk egitura diziplinatu eta militarizatu du, eta zelula edo “kabi” lokalak ditu lan egiten duten herrialde bakoitzaren eskualdeetan. Kabi horiek askotariko jarduerak antolatzen dituzte, hala nola manifestazioak, martxak, propaganda-banaketak, entrenamendu paramilitarra eta atentatuak. Duela gutxira arte zelula guztien erantzule zentralizatua Simon Lindberg deitutako suediar beterano neonazi bat zen.

2024ko otsailean Fredrik Vejdelandek hartu zion erreleboa, lehenago kanpainako gerente eta Nordfront online egunkariaren erredaktoreburu izandakoa. Gainerako zuzendaritzako kide dira gutxienez Emil Hagberg nazioarteko arduradun eta eskualdeko zelula nagusien koordinatzailea eta Pär Öberg antolakundearen markoan sortutako alderdi politikoko liderra. Suediako sukurtsalak hauteskundeetarako alderdi bat sortuko zuela iragarri zuten 2014ko urrian. Alderdiak antolakundearen “hegal parlamentarioa” ordezkatzeko du, baina hauteskundeetan ez du arrakastarik lortu, eta ez du haren ekintza-lerro nagusia ordezkatzeko, NMRk kutsu mugimenduzalea mantentzen baitu.

Liderrak arduratzen dira taldearen estrategia orokorra definitzeaz eta herrialde desberdinen arteko jarduerak koordinatzeaz. Mugimenduaren base nagusia Suedian badago ere, NMRk presentzia du beste herrialdeetan ere, “Eskandinaviar Nazio Handi” bat sortzeko bere anbizioaren parte.

Suedia: NMR aktiboen eta agerikoen den herrialdea. 200-300 kide aktibo artean dituela kalkulatu da. Erregulariki martxak antolatzen dituzte, eta beste eskandinaviar herrialde batzuekin alderatuta, jarraitzaileen oinarri handi samarra dute. Eskala handiko manifestazioak mobilizatzeko duen gaitasuna kezka iturri izan da herrialdean.

Finlandia: arestian aipatu bezala, NMR 2017an debekatu zen Finlandian, pertsona migranteen eta LGTB komunitateko kideen aurkako zenbait ekintza biolentorengatik, baina ezkutuan jarduten jarraitzen du. Kide ohi batzuek debekua saihesteko talde berriak sortu dituzte, Kohti Vapautta taldea kasu (“Askatasunerantz”). Ilegalizazioaren aurretik, sekzio honek 100-200 militante aktibo artean zituela kalkulatu da.

Norvegia: Suedian baino gutxiago diren arren, NMRk aktibo egoten jarraitzen du Norvegian, manifestazioak antolatuz eta propaganda neonazia banatuz. Haren manifestazioek tentsioak sortu ohi dituzte kontramantestazioekin. Finlandian baino militante gutxiago dagoela uste da.

Danimarka eta Islandia: NMRk Danimarkan eta Islandian presentzia askoz ere urriagoa du, nahiz eta zenbait propaganda-jarduera eta manifestazio txiki egin dituzten. Dena den, haren eragina askoz ere mugatuagoa da Suediarekin eta Finlandiarekin alderatuta.

Finlandian debekatu izan eta AEBko Estatu Sailak Munduko Antolakunde Terroristen zerrendan sartu duen arren, NMRk erdi ezkutuan jarduten jarraitzen du. Haren antolakuntza-egitura sendoak eta sare sozialen erabilerak eskualdeko ultraeskuineko eragile arriskutsuenetarikoa bihurtzen du

Suedia

Suedia herrialde eskandinaviarretan formalki eraturako parlamentuz kanpoko gainerako eskuin muturreko mugimenduetarako jarduerak fokurik indartsuena izan da.

• **Suediarren Alderdia (Svenskarnas parti, SVP):** 2008-2015 artean jardun zuen ideologia neonaziko antolakunde politikoa. Suedia “arrazaz puru” baten alde egiten zuen, eta ezaguna izan zen migratzaileen aurkako haren erretorika erradikalagatik. Martxak antolatzeaz gain, hauteskundeetara aurkeztu ziren hainbatetan, eta 2010ean ordezkari bat lortu zuten udal batzorde batean. Bigarren Mundu Gerraz geroztik lehen aldiz lortu zuen alderdi argiro neonazi batek ordezkari-tza instituzionala.

• **Suediar Alternatiba (Alternativ för Sverige, Afs):** argiro neonazia izan gabe eskuinerradikalenean kokatutako alderdi ultranazionalista da. Alemaniarentzako Alternatiba (AfD) inspirazio gisa harturik, 2018an sortu zuen Suediako Demokratien gazteria disidenteak, kontsideratzen baitzuten alderdi hori “moderatuegi” bihurtu zela. AfSk immigrante guztien deportazioaren aldeko agenda sustatzen du, baita bizileku baimena dutenen haiena ere. Hauteskundeetan parte hartzen duen arren, 2022an 16.646 boto bakarrik lortu zituen, eta ordezkartzarik ez parlamentuan; beraz, parlamentuz kanpoko izaten jarraitzen du. 2018an 1.200 bat kide zituztela adierazi zuten. Sare sozialetan presentzia nabarmena dauka, eta zenbait manifestazio egin ditu.

Norvegia

Norvegian, parlamentuz kanpoko ultraeskuineko joerak Suedian baino ahulagoak izan dira, baina mehatxu esanguratsua dira oraindik.

• **SIAN (Stop Islamisation of Norway):** 2000. urtean eratutako talde islamofobo bat da. Adierazitako helburua “islamaren aurka lan egitea” da, zeina “norvegiar konstituzioa urratzen duen ideologia politiko totalitario” bezala definitzen duen. Lehengo antolakundea Arne Tummyrek gidatzen zuen, eta orain Lars Thorsenek. 2011n antolakundeak bere Facebook taldean 13.000 kide inguru zituela adierazi zuten, nahiz eta haren bilera eta manifestazioetan jende kopuru urria izan. Antolakundeak berak 3.000 kide zituela baieztatu zuen, egoitza nagusia Oslon eta Stavengerren izanik. Kopuru horiek, alde handiz, *Stop Islamisation of Europe* (SIOE) sareko antolakunderik handiena bihurtzen zuten. 2012an SIOE antolakunde amarekin apurtu zuen SIANek –2008an elkartu zen harekin–. 2019tik mitinetan Korana erretzeagatik da ezaguna.

• **Alliansen:** inspirazio neonaziko alderdia. 2016an sortu zuen Hans Lysglimt Johansenek. Aktibista bitxi horrek lotura du NMRrekin, eta iruzkin antisemita eta konspirazionistengatik da ezaguna. Alliansenek bere diskurtsoa immigrazioaren eta multikulturalismoaren aurka ardatzen du. Politika instituzionalean parte hartzen saiatu den arren, 2021ean 2.489 boto bakarrik lortu zituen, eta parlamentutik kanpo gelditu zen. Ordea, mugimendu horren ezaugarri berezia da pantailakume neonaziz osatutako online komunitate batek osatzen duela, zeinak memeak argitaratzen dituzten eta Discord

moduko plataformetan mezu arrazista eta antise-mitekin troleatzen.

Danimarka

Danimarkan, ultraeskuineko mugimenduak nagusiki migrazioaren aurkako politikan eta islamofobian oinarritu dira, neonazien presentzia ere badagoen arren.

• **DNSB (Danmarks Nationalsocialistiske Bevægelse):** Danimarkan nazionalsozialismoa eta supremazismo zuria sustatzen duen talde neonazi txiki bat da. Bere presentzia mugatua bada ere, 1930eko hamarkadan nazismo alemanaren inspiraziotik sortutako Danimarkar Langile Nazionalsozialista Alderdi historikoaren oinordeko da. 150 kide aktibo eta 1.000 “pasibo” ditu, aktibo jarraitzen du zenbait eskualdetan, eta ekintza txiki eta protestak antolatzen ditu.

• **Stram Kurs (“Ildo Gogorra”):** Alderdi hau, Rasmus Paludanek gidatua eta 2017an sortua, Danimarkako muturrekoetako bat da, eta islamofobian, xenofobian eta euroeszeptizismoan oinarritutako agenda du. Zentzu klasikoan neonazia ez den arren, bere gorroto erretorikak eta probokazio publikoek parlamentuz kanpoko ultraeskuinako aktore giltzarrietako bat bezala kokatu dute. Paludanek antolatu dituen ekintza publikoen artean daude, adibidez, Koranaren eta Mahomaren marrazkien erreketak, komunitate musulmanarekin tentsioa areagotzeko xede planifikaturekin egina.

• **For Frihed (“Askatasunagatik”):** “Pegida” alemaniar mugimendu islamofoboaren eta xenofoboaren sekzio daniar gisa sortu zen antolakundea 2015ean. Nicolai Sennels izan zen sortzailea, Daniar Alderdi Popularraren parlamentuko hautagai ohia. Taldea Kopenhagen manifestatu zen; hasieran 300 bat manifestari zituen, baina gero 50 bat manifestarira murriztu zen asteroko manifestazioetan. Urte bereko martxoan, taldeak “For Frihed” izena hartu zuen.

Sennelsek, “Islamak eta kultura musulmanak pertsonen garapena kaltetzen eta delitu portaera areagotzen duten zenbait mekanismo dituztela” baieztatu zuen Kopenhageko psikologoak, 2015eko abenduan dimititu zuen lider moduan, eta Daniar Alderdi Popularrera aldatu zen. 2016ko urtarrilean, antolakundeak Pragako Adierazpena sinatu zuen “Europa Gotorlekua” koalizioaren parte moduan, Pegidarekin lotutako beste nazioarteko talde batzuekin batera.



2016tik aurrera, Rasmus Paludan izan zen For Frihed antolakundearen ordezkaria. Nahiz eta ez duten zuzeneko biolentzia-ekintzarik antolatzen, musulmanen aurkako biolentzia zeharka kinatzen duten adierazpen polemiko ugari sortzen dituzte. 2017an, Paludanek Stram Kurs sortu zuen, ares-tian aipaturiko talde eta alderdi politiko islamofobo berria.

Finlandia

Finlandiak, azkenengo urteotan, talde neonazi eta ultraeskuinekoen susperraldia jasan du, horietako batzuk jarduera biolentoetan tartean daudelarik.

- **Odineko Soldaduak:** kale bijilantziako talde hau Finlandian jaio zen eta Eskandinaviako, Europako eta oro har mendebaldeko beste herrialde batzuetara zabaldu da. 2015ean “migrazioaren gorakadari erantzunez” sortu zen, eta immigrazioaren aurkako agenda ultranazionalista sustatzen du. Neonaziak ez direla adierazi arren, haren kideetako asko neonazismora lotuta egon izan dira. Soilik Finlandian 600 bat kide dituztela baieztatzen dute. Haren Facebookeko orri finlandiarrek 49.000 jarraitzaile zituen 2017an. Anitz eraso biolentorekin erlazonaturik daude.

- **Suomen Sisu:** finlandiar etnonazionalismoa sustatzen duen eskuma erradikaleko talde nazionalista da. Honela aurkezten du bere burua: “alderdikoia ez den elkarte finlandiar” bat, “nazionalista eta patriotikoa”, “immigrazio mugagabea” zein “multikulturalismoa” kritikatzeko dituen. Suomen Sisu aldarrikatzen du babestu egiten dituela beren burua subiranotasunez gobernatzen duten nazio estatu burujabeak, eta kooperazio supranazionalaren kontra egiten du, bereziki Europar Batasunaren kontra. Hastapenean, 1998an Finlandiar Kulturaren eta Nortasunaren Elkarteko (Suomalaisuuden Litto) adar gazte gisa sortu zen, baina kidezta hori 2000. urtean apurtu zen. Antolakundea ez dago beste ezin alderdi politikori formalki afiliaturik, baina haren kideak alderdi batzuetan aritu dira norbanako gisa, batez ere Finlandiarren Alderdian.

- **Kohti Vapautta (“Askatasunerantz”):** Finlandiako talde neonazi hau nabarmendu egin da azken urteotan. Lehen aipatu dugun bezala, ia ziurtasun osoz, NMRren adar zaharraren birfundazioa islatzen du, hura 2017an legez kanpo geratu ondoren. NMRko kide ohiek osatzen dute batez ere, baina badirudi eskuin muturreko beste talde txikiago batzuk ere batu zaizkiela. Beste erakunde batzuek bezalako ikusgarritasunik ez izan arren, aktibo daude manifestazioetan eta sare sozialetan.

Islandia

400.000 biztanle baino gutxiagoko herrialde bat denez, bizilagun dituen herrialdeekin alderatuta, Islandiak jarduera txikiagoa du eskuin muturreko mugimenduei eta neonaziei dagokienez. Hala ere, ez dago haien presentziatik erabat libre: NMRren sukurtsal txikiek eta beste mugimendu batzuek agerpen txikiak egin dituzte. Bestalde, nabarmentzekoa den gauza bakarra da Islandia Askea eskuin muturreko alderdi txikiak (*Íslenska þjóðfylkingin*) egindako saiakera arrakastagabea. Izan ere, parlamenturako hauteskondeetara aurkeztu da, baina porrot egin du.

ARRISKU ERLATIBO OSO HANDIA

Lehen begiratuan, deskribatutako egoerak ez dirudi oso esanguratsua termino kuantitatibo absolutuetan: herrialde eskandinaviarretako eskuin muturrak, totalen, hamarnaka mila militante aktiboko kopuru zehaztugabe bat izango du. Baina hori asko da herrialde eskandinaviarrentzat, Suedia, Norvegia, Finlandia eta Danimarkaren artean 26 milioi biztanle inguru baitituzte. Alderatzeko, gogoan izan behar da Alemanian, 85 milioi inguru biztanle izanik, inteligentzia-zerbitzu federaletan “eskuin muturreko” 35.000 pertsona dituztela identifikatuta gaur egun; horietatik 15.000, “bereziki biolentoak”. Zifra horiekin, Alemaniako eskuin muturra Europako arriskutsuenetakotzat jotzen da.

Laburbilduz, oso litekeena da gaur egun herrialde eskandinaviarretako eskuin muturra izatea Europako arriskutsuena, termino erlatiboetan

Beraz, nabarmentzekoa da herrialde eskandinaviarretako eskuin muturraren ekosistema politikoa hain askotarikoa, zabala eta bizia izatea demografikoki hain txikia den eta biztanleria-dentsitate hain txikia duen eskualde batean (7,72 biztanle kilometro karratuko). Gainera, azpimarratzekoa da hain muturrekoak diren talde horiek gai direla nahiko erraz milaka jarraitzaile irabazteko; eta

eskuindartze prozesu sozialak, oro har, eta eskuin muturreko antolakundearen gorakadak, bereziki, jarraitzaileak arrantzatzeko espazio are handiago ematen diela. Hortaz, oraindik badu hazteko tartea eskuin eskandinaviar muturrekoak. Horri guztiari gehitzen badiogu jarrera bereziki prestua duela indarkeria erabiltzeko, herrialde horietako antolakunde iraultzaile eta antifaxistak ez direla hain indartsuak eta Armadako eta Poliziako kideak Europako herrialde gehienetan baino askoz ere gutxiago direla, hainbat ondorio atera daitezke: ahalmen desegonkortzaile handia du eskuin muturrak. Laburbilduz, oso litekeena da gaur egun herrialde eskandinaviarretako eskuin muturra izatea Europako arriskutsuena, termino erlatiboetan.

1.3 Eskuin muturreko indarkeria ekintzak

Arestian aipatutakoa ondo erakusten du azken urteotan izan diren muturreko indarkeria-ekintzen kopuruak. Europako gainerako herrialdeetan nahiko ezezaguna bada ere, herrialde eskandinaviarrek muturreko arrazismo eta indarkeria xenofoboz gainezka egon dira azken urteotan. Izan ere, eskualdean gertatu diren motibazio politikoko atentatu gehienak eskuin muturrak egin ditu. Jarraian, kasurik ezagunenetakoa eta esanguratsuenetakoa zazpi aipatuko ditugu:

1. Anders Behring Breiviken atentatua (Norvegia, 2011)

Eskuin muturrak herrialde eskandinaviarretan egindako erasorik suntsitzaileena Anders Behring Breivikek egin zuen 2011ko uztailaren 22an, Norvegian. Koordinatutako bi eraso egin zituen Breivik neonazi islamofoboak, berak bakarrik:

- Bonbardaketa bat Osloan: Breivikek bomba bat jarri zuen Osloko gobernu barrutian, eta zortzi pertsona hil eta dozenaka zauritu zituen.

- Sarraski bat Utøyen: bonbaz egindako atentatuaren ondoren, Breivik Utøya uhartera joan zen, eta Alderdi Laboristako gazteen kanpamendu baten aurka tiro egin zuen. 69 pertsona hil zituen bertan, gehienak nerabeak, ordubete baino gehiago iraun zuen tiroketa batean.

Breivikek bere ekintzak justifikatu zituen “Europaren islamizazioaren” eta multikulturalismoaren aurkako borroka gisa, eta 1.500 orrialdeko manifestu bat utzi zuen, eskuin muturreko bere ideiak azalduz. Breivik faxistaren erasoak da Norvegian Bigarren Mundu Gerraz geroztik egin den ekintzarik hilgarriena.

Breivik faxistaren erasoak da Norvegian Bigarren Mundu Gerraz geroztik egin den ekintzarik hilgarriena

2. Jon Hronen erailketa (Suedia, 1995)

John Hron 14 urteko nerabe suediar bat zen, eta neonazi talde batek bortizki erail zuen 1995ean, Kungälvén (Suedia). Aurretik, neonaziek haren eskolan egin zioten eraso Hroni, arrazakeriaren aurka zuten jarreragatik, eta erailketaren unean torturatu eta kolpatu egin zuten ihes egiten saiatzen ari zela. Jipoitu eta hil egin zuen talde neonaziak. Suedia astindu zuen kasuak, eta agerian utzi zuen neonazien indarkeriak gora egin zuela 90eko hamarkadan.

3. Eskandinaviar Erresistentzia Mugimendua bonbekin egindako erasoak (Suedia, 2016-2017)

2016 eta 2017 artean, entrenamendu paramilitarra jasoa zuten NMRko hainbat kidek lehergailu bidezko eraso batzuk egin zituzten Suedian, errefuxiatu zentroen eta ezkerreko erakundearen aurka. Gertakari aipagarrienen artean:

- 2016ko abendua: Göteborgeko errefuxiatu zentro bati lehergailu batekin eraso zioten, eta pertsona bat larri zauritu zuten.

- 2017ko urtarrila: bomba-eraso bat egin zuten, ezkerreko ekintzaileei lotutako liburu denda eta zentro komunitario batean, Göteborgen.

- 2017ko martxoa: beste bomba-eraso bat errefuxiatuentzako harrera etxe batean, Västra Frölundan. Zorionez, ez zen hildakorik izan, baina istiluek beldurra eragin zuten tokiko biztanleen artean.

4. Odinen Soldaduen Biolentzia (Finlandia, 2015etik)

“Herritarrek immigranteengandik babesteko kaleko patruila” gisa aurkezten dute euren burua Odinen Soldaduek. NMR ez bezala, ez dute eskala handiko ekintza terroristarik egin, baina haren kideek “intentsitate txikiko” eraso bortitz ugari hartu dute parte. Immigranteen eta jatorri atzerriarreko pertsonen aurkakoak izan dira eraso horiek, Finlandiako kaleetan eta taldea hedatu den beste herrialde batzuetan eginak. Odinen Soldaduek auzoak patruilatzen dituzte, eta indarkeria fisikoari eta migratzaileen aurkako jazarpenari lotutako istiluetan parte hartu dute.

5. Philip Manshausen erasoa (Norvegia, 2019)

2019ko abuztuan, Philip Manshaus, supremazista zuri norvegiar bat, meskita baten aurkako eraso masibo bat egiten saiatu zen Bærumen, Norvegian. Inspirazio harturik eskuin muturreko beste terrorista batzuk, hala nola Christchurcheko (Zeelanda Berria) erasotzaileak eta Anders Breivik-ek, meskitan tiro egin zuen Manshausek, eliztarrek berehala atxilotu zuten arren. Erasoa horren aurretik, Manshausek bere ahizpaorde adoptatua erail zuen, jatorriz asiarra zena. Ideologia supremazista zuria eta neonazismoa begiko zituela adierazi zuen aurrez subjektuak.

6. Ronny Landinen erailketa (Suedia, 2002)

2002an, Ronny Landin suediar gaztea erail zuen bertako neonazi talde batek Söderhamn hirian. Landin bortizki jo zuten hil arte neonaziekin izandako liskar baten ondoren. Aldi horretan Suediako neonaziek gauzatutako muturreko indarkeria kasuetako bat izan zen hura.

7. LGBTQ+ manifestazio baten aurkako erasoa Jönköpingen (Suedia, 2014)

2014an, LGBTQ+ harrotasuna aldarrikatzeko manifestazio bati eraso zioten hainbat neonazik Suediako Jönköping hirian. NMRko kide ziren erasotzaileak, eta harriak eta objektuak bota zizkieten manifestazioan parte hartzen ari zirenei, martxa sakabanatzen saiatuz. Hildako biktimarik izan ez zen arren, eskuin muturrari lotutako indarkeria homofobiko eta transfobikoaren oroigarri izan zen eraso hori eskualdean.

2. XENOFOBIA HERRIALDE ESKANDINAVIARRETAN

Ordea, herrialde eskandinaviarretan jarrera xenofoboen gorakadaren arloan izan duten aldaketa ezin da azaldu eskuin muturreko alderdi eta mugimendu politikoen esku-hartzei bakarrik erreparatuta. Eskuin muturreko diskurtso eta ekin-tzetan ez ezik, eguneroko bizitzan ere agertzen da xenofobia eskualde horretan: antolatutako gabeko arrazakeria-gertakarietan, diskriminazio sistemi-koan, “nazio nortasunari” buruzko tentsio gero eta handiagoan, bai eta ezkerreko tradizioa duten alderdien beren barruan ere.

Beraz, hirugarren atal honetan, xenofobiak herrialde eskandinaviarretako gizar-teetan izan di-



Eta, hori gutxi balitz bezala, Danimarkako sozialdemokratek arraza-kuota zentzugabe batzuk ere ezarri dituzte auzoetan “Mendebaldekoak ez diren bizilagunen gehieneko kuotak %30ekoak” izatea zehaztu dute

tuen bilakaera eta errotzea erreparatuko ditugu, jarrera publikoak aztertuz eta xenofobia egitura sozial eta ekonomikoetan nola agertzen den landuz. Horrekin, frogatuko dugu arrazakeria kapitalismo eskandinaviararen gaitz endemiko bat dela, eta ez eskuin muturraren ondare partikular bat.

2.1 Alderdi tradizionalen eskuineratzea eta lekualdatzea

Eskuin muturreko mugimenduek sortutako *tentsioaren estrategiak*, krisi kapitalistaren esparru orokorrarekin elkaturik, eragin sakona izan du alderdi tradizioaletan. Eragina sozialdemokraziarino iritsi da: nahiz eta ultraeskuindarrek, zenbait auzitan duten hurbiltasun ideologiko eta soziala-gatik, eragin handiagoa duten zentro-eskuineko alderdietan, faxistatzearen efektuak sozialdemokraziaren oinarria eta zuzendaritza baldintzatzea lortu du, immigrazioari eta ordena publikoari buruzko jarrera murriztaileagoak hartzera behartuz. Horrela, eskuin muturrera joandako boto emaileak berreskuratzea eta hautesle zalantzatiak mantentzea espero dute politikari sozialdemokratek.

Suedian, adibidez, immigrazioarekiko jarrera gogortu du Alderdi Sozialdemokratak, asiloari eta integrazioari buruzko lege zorrotzagoak ezarriz. 2015etik, Suediako polizia-agintaritzek erregistro bat dute kriminalitate tasa handiei eta gizarte bazterkeriari dagokienez “eremu kalteberak” (*Utsatt område*) identifikatzeko. 2017an, populazio-gune nagusietan “eremu kaltebera” horietako 61 zeuden dagoeneko identifikatuta, gehienak *Millionprogrametaren* barruan zeuden auzoetan. 1970eko hamarkadako programa horren helburua zen milioi bat etxebizitza sozial sortzea lan indarraren eskaria xurgatzeko, eskaria gero eta handiagoa baitzen herrialde osoan. Programako auzoak, Frantziako *banlieues* direlakoan antzera, gero eta gehiago degradatzen joan zen proletarioentzako bazterkeria-eremu bihurtuz, eta fenomeno horren ondorioz, jatorri oso desberdineko langile imigranteen masak sortu ziren.

Bestalde, Danimarkako Alderdi Sozialdemokrata nabarmena da Europar diskurtso xenofoboa integratzeari dagokionez. Eskuin muturreko Alderdi Popularra gelditzeko ahaleginean, Meloni, Le Pen eta Europako gainerako alderdi ultraeskuindarren immigrazio politika homologo bat hartu du Danimarkako sozialdemokraziak. Eta arrakasta lortu du hauteskundeetan. Migrazio politika zorrotzago horien barruan sartzen da, besteak beste, “asilo eskaerak prozesatzeko” helburuz asilo eskatzaileak Europatik kanpoko herrialdeetara kanporatzeko

Paradoxikoki, “ez diote ultraeskuinari gobernatzen utzi nahi”, baina gobernu-programa inposatzen uzten diote. Sozialdemokratek, liberalek eta kontserbadoreek “beren ideiak” saltzen dituzte, baina beren besaulkiei eusten diete

egin duten proposamena. Danimarkako Alderdi Popularrak aurrez proposatzen zuen neurri hori. Eta, hori gutxi balitz bezala, Danimarkako sozialdemokratek arraza-kuota zentzugabe batzuk ere ezarri dituzte auzoetan “Mendebaldekoak ez diren bizilagunen gehieneko kuotak %30ekoak” izatea zehaztu dute.

Era desberdinetan eta erresistentzia-maila ezberdinekin, eskuin muturraren programa sozialdemokraziara barneratzen da krisi garaian: lehenik eta behin eskuin muturrak inposatzen dituen esparru eta gaiak hartzen dituzte sozialdemokratek beren diskurtsoan, eta proposamen politiko zehatz batzuk ekartzen ditu horrek. Imigrazioari eta segurtasunari buruzko paranoia soziala handitzen den lekuetan, ezker erreformista osatzen duen elektoralismoak programa erreakzionarioa integratzera bultzatzen ditu alderdi horiek, modu partzialean izan edo osorik izan. Lehen esaten zen “ezkerrari eman behar zaio botoa, ultraeskuinak irabaz ez dezan eta imigranteei eraso ez diezaien”, baina orain, bestelako gauza batzuk entzuten hasi dira pixkanaka: “Ultraeskuinak hizpide dituen gaiei buruz hitz egin behar da, eta ultraeskuinak hartu nahi dituen neurri batzuk hartu behar dira, ultraeskuinak irabaz ez dezan”. Paradoxikoki, “ez diote ultraeskuinari gobernatzen utzi nahi”, baina gobernu-programa inposatzen uzten diote. Sozialdemokratek, liberalek eta kontserbadoreek “beren ideiak” saltzen dituzte, baina beren besaulkiei eusten diete.

2.2 Immigranteekiko jarrerak

Immigrazioaren hazkundera, batez ere gatazkan dauden herrialdeetatik datozen errefuxiatuei dagokionez (hala nola Siria, Afganistan eta Somaliatik iritsitakoak), inflexio-puntu bat izan da herrialde eskandinaviarretan immigranteen inguruan dagoen pertzepzio publikoan. Azterlan eta inkesta berri batzuen arabera, nahiz eta egon badagoen balio humanitarioekiko nolabaiteko konpromisoa, gero eta biztanle gehiago hasi dira immigrazioa “mehatxutzat” hartzen.

Suedian, immigranteekiko jarrerak nabarmen aldatu dira. *Pew Research Center* eta *SOM Institute* erakundeek egindako inkestek erakusten dutenez, immigranteen kopurua “gehiegizkoa” dela uste duten suediarren ehunekoa nabarmen igo da azken urteetan, bereziki 2015eko errefuxiatuen krisiaren ondoren.

Danimarkan, immigrazioaren gaiak are gehiago polarizatu du gizartea. Diskurtso publikoan nagusitu den ideia ondokoa da: immigranteak ez direla “behar bezala integratzen Danimarkako kulturara”, eta “zama bat” direla “ongizate-estatuarentzat”. Horrek politika murriztaile batzuk ekarri ditu, hala nola Bitxien Legea, errefuxiatuen ondasunak konfiskatzea ahalbidetzen diena agintaritzeari, herrialdean egiten duten egonaldia finantzatzeko.

Norvegiak eta Finlandiak antzeko bilakaera izan dute, eta gero eta herritar gehiago daude “kezkatuta immigrazioaren eragin kultural eta ekonomikoagatik”. Europako beste eskualde batzuekin aldean integrazioa handiagoa badute ere, tentsioak areagotu egin dira, batez ere biztanleria immigrantea nabarmenagoa den hiriguneetan.

2.3 Diskriminazio sistemikoa

Herrialde eskandinaviarrek harro adierazten duten arren berdintasun sozial handia dutela, oso bestelakoa da immigrante askoren eta haien ondorengoen errealitatea. Diskriminazio sistemikoa eguneroko bizitzako hainbat alderdiri eragiten die, besteak beste, enplegua, etxebizitza eta hezkuntza lortzeari. “Integrazioa sustatzeko” politikek propagandatik gehiago dute eraginkortasunetik baino; izan ere, immigranteek eta gutxiengo etnikoek egiturazko oztopoei egin behar diete aurre, eta aukerak izatea mugatzen die horrek.

Lan-merkatuan, adibidez, Europakoak ez diren herrialdeetatik datozenek askoz ere langabezia-tasa handiagoak dituzte bertako herritarrek baino.



Kualifikazio handiko immigranteek ere zailtasunak izaten dituzte beren jakintzekin bat datozen lanak egiteko, askotan, kontratazio-prozesuetan inplizituki diskriminatzen dituztelako. Norvegiako Gizarte Ikerketako Institutuak egindako ikerketa baten arabera, atzerriko izenak dituzten eskatzaileek aukera gutxiago dute elkarrizketa baterako deituak izateko izen norvegiarrak dituztenek baino, nahiz eta kualifikazio berdina izan.

Suedian, atzerriar jatorriko komunitateentzat ere erronka bat da etxebizitza eskuratzea. Immigrante asko dauden hiriguneetan desinbertsioa egiten da askotan, eta eremu horietako biztanleek kalitatezko zerbitzuetarako sarbide txikiagoa dute. Horren ondorioz, gune etnikoak sortu dira, eta, kasu batzuetan, baita segregazio sozial handiagoa ere. Horrek bazterketa-zikloa betikotzen du.

Norvegiako Gizarte Ikerketako Institutuak egindako ikerketa baten arabera, atzerriko izenak dituzten eskatzaileek aukera gutxiago dute elkarrizketa baterako deituak izateko izen norvegiarrak dituztenek baino, nahiz eta kualifikazio berdina izan

Hezkuntza-sisteman ere islatzen da hori; izan ere, familia immigranteetako hurrek bertako ki-deek baino emaitza txarragoak lortzen dituzte, eta eskola-uzteari lotutako tasa handiagoak dituzte. Horrek abiapuntu kaltegarriago batean uzten ditu lan-merkatuari begira, eta horrek, aldi berean, elikatu egiten ditu bazterketa soziala eta lanaren banaketa arraziala.

3. ESTATU-AUTORITARISMO GORAKORRA HERRIALDE ESKANDINAVIARRETAN

Herrialde eskandinaviarretan gero eta autoritarismo handiagoa egotea zuzenean dago lotuta xenofobiaren eta eskuineko populismoaren hedapenari. Jada aipatu ditugu demokrazia burgesek beren lege nagusietan aldarrikatzen dituzten eskubide zibilak eta aniztasun politikoa higatzen dituzten neurri batzuk. Baina askoz ere gehiago dira izatez, eta guztiak justifikatzen dituzte “immigratioarekiko beldurra, terrorismoa eta ezegonkortasun soziala” argudiatuta.

3.1 Legeria murriztailea eta kontrol sozialeko neurriak

Suediak nabarmen gogortu zituen migrazio-politikak 2015eko errefuxiatuen krisiaren ondoren. Mugako kontrol zorrotzagoak eta familia bateratzeko murrizketak ezarri zituzten, eta immigranteen eta asilo-eskatzaileren eskubideak mugatu zituen horrek. Ordena sozialari eusteko eta ongizate-sistemaren “gainkarga” saihesteko beharrezko neurri gisa aurkeztu dituzte politika horiek.

Norvegiak eta Finlandiak antzeko bide bati jarraitu diote, deportazioak errazteko eta herritar-tasuna lortzeko baldintzak gogortzeko legeak ezarri baitituzte. Nahiz eta “segurtasun nazionalaren” atzean ezkutatu, helburu batzuekin daude diseinatuta legedi horiek: immigrantei disuasio-mezuak bidaltzea eta politika murriztaileagoak babesten dituzten biztanleen sektore zabalak baretzea.

Suedian, segurtasun-zerbitzuek areagotu egin dute meskiten eta komunitate musulmanen

kontrola. Agintaritzek neurri horiek “prebentziozkotzat” jotzen dituzten arren, susmo- eta marginazio-giro bat sortu dute immigrante komunitateekiko. Kontrol horrek, komunitate migratzaileek estatuarekiko duten mesfidantza sustatzeaz gain, erresumina eta erradikalizazioa ere elika ditzake.

Norvegiak eta Danimarkak kontrol-sistema intrusiboagoak ezarri dituzte, hala nola datu-bilketak masiboak eta online monitorizazioa. Gizabanako susmagarriak ez ezik, herritar arruntak ere barne hartzen dituzte sistema horiek. Balizko “eraso terroristen” beldurra bultzatuta, pribatutasunerako eskubidea higatzen laguntzen dute, baita estatuak eguneroko bizitzan duen kontrolaren sentsazioa areagotzen ere.

3.2 Disidentziaren kontrako errepresioa eta elkartasunaren kriminalizazioa

Herrialde eskandinaviarretan gailentzen ari den autoritarismoaren beste alderdi bat da gero eta handiagoa dela disidentzia politikoaren kontrako errepresioa eta immigranteekiko elkartasun-jardueren kriminalizazioa. Hainbat naziotan, errefuxiatuei eta immigranteen komunitateei laguntza aktiboa ematen dieten herritarrak beldurtu dituzte, eta, kasu batzuetan, epaitu.

Danimarkan, adibidez, errefuxiatuei herrialdera sartzen lagundu dieten edo asilo-eskatzaileri babesa eskaini dieten aktibistak migrazio-legeak urratzeaz akusatu dituzte. Elkartasunaren kriminalizazio horren helburua da estatuaren migrazio-politika murriztailei aurre egiten dieten jardueretan parte hartzeko asmoa kentzea bertako langileei.

Finlandian, kazetariei eta aktibistei ere eragin die errepresioak, pertsona migranteen eskubideen aurkako gehiegikeriak salatzen baitituzte. Duela gutxiko zenbait kasu erakutsi dute gobernuak prest daudela legezko tresnak erabiltzeko kritikak isilarazteko, eta horrek zalantza handiak sortzen ditu herrialde horietako adierazpen-askatasunaren egoerari dagokionez. ●



Suediaren antz handiagoa eta Greziaren antz txikiagoa izan dezagun

Testua — **Jose Castillo**

Irudia — **Manubeltz**

Europa hegoaldeko hauteskunde-diskurtso askotan beti agertzen da ideia karikatuzatu hau: antz handiagoa izan beharko genukeela Europa iparraldeko herrialdeekin, hau da, eskandinaviarrekin. Oso ohikoa da gure politikarien eztabaidetan entzutea kontinenteko iparraldeko herrialdeekin berdindu behar ditugula edonolako tasak: langabezia-tasaren jaitsiera, ordainsari-berdintasuna, bikaintasuneko hezkuntza-sistema edo per capita gastu sozialaren inbertsio maila beretara iristea. Suediak eta Greziak 10,5 milioi biztanle inguru dituzte, baina batak sozialdemokrazia efiziente, produktibo eta parekidearen paradisua ordezkatzen du; besteak, aldiz, alferkeria, klientelismoa eta eraginkortasunik eza, Mediterraneoko bizimoduaren ezaugarri propioak denak ere.

Alabaina, pixka bat sakonago begiratu gero, berehala ikusten da oro ez dela urre. Greziarrek, eta oro har Europako hegoaldeko gainerakoek eraginkortasunik eza ordezkatzen badute beren pikarokeriagatik eta Mediterraneoko langileek ohikoa duten lan-absentismoagatik, nola da posible herrialde heleniarra buru izatea lan egindako ordu kopuruari buruzko Europar Batasuneko rankingean? Nazioen aberastasuna ez du markatzen ez alferkeriak ezta batzuen efizientziak ere, bai-

zik eta kapitalismoak zer baldintza historiko ematen dituen joko-zelai globalean, non estatuak eta haien langile-klaseak ez duten abiapuntu berbera. Sinple esateko, denok Suedia izango bagina, Suedia ez litzateke existituko.

Suediaren ereduak –eta, oro har, eredu eskandinaviarra, non Suedia, Finlandia, Danimarka eta Norvegia sartzen diren– bost zutabe bakar eta errepikaezin ditu: geografikoki Europako botere politiko-ekonomikoaren nukleotik gertu kokatzen dira; biztanleria nahiko murrizta dute eta migrazio-fluxu egonkorak izan dituzte azken hamarkadara arte; Europan parekorik gabeko baliabide naturalen eta hidrokarburoen dotazioa dute; estatu indartsu eta zentralizatua dute, gaitasuna duena sindikatuen eta patronalaren arteko negoziazioa modu eraginkorrean erregulatzeko, eta, azkenik, lan-indar kualifikatua dute, eta proportzio handian sindikaturikoa.

Europan, herrialde eskandinaviarrak dira gobernuan alderdi sozialdemokrata gehien izan dituztenak. Era berean, lan-indar kantitate handia dute sindikatuta alderdi horietatik gertuko sindikatuetan; adibidez, Suedian eta Finlandian %65ekoa da kopuru hori. Alabaina, sozialdemokrazia eskandinaviarrak ia XX. mendearen hasieratik onartu du patrona-

laren eta estatuaren arteko paktu baten mendekoa dela bere baketze sozialeko eredu, eta haien soldata-indexazioa beti dela produktibitatearen hazkundearen mendekoa.

Izan ere, ia elkarren kontrakoak dira Suediako eredu sozialdemokrata eta Europa hegoaldeko keynesianismoa, eskari agregatuan oinarritua. Eredu eskandinaviarrean estatuak kapitalismoarentzat lehiakorra den esparru baten aldeko apustua egiten du, eta ez zuzenean esku-hartzekoa. Bestela esanda, Suediako eta gainerako herrialde eskandinaviarretako sindikatuek eta sozialdemokraziak ongi ulertu zuten beren alderdiaren jokoa ez zela kapitalari aurre egitea, beren kapital propioa lehiakorrago egitea baizik.

Europa iparraldeko herrialdeetako sozialdemokraziaren esperientziek, gure idealizazioetatik urrun, lan-merkatu malguak eta enpresariei langileak kontratatu eta kaleratzeko erraztasunak ematen dizkieten legediak dituzte oinarri. Bai eta lan-indarra aurrezteko teknologia txertatzen dituzten dirulaguntzak ere. Ordea, biztanle gutxi izateari esker, estatuak aukera du lan publikoan kuota handiak mantentzeko, gutxi gorabehera enplegatutako langileen %30en bueltakoa. Horrenbestez, enpleguaren politika aktiboa sustatzen duen eragile bat da estatua, baina karta nagusia honako hau da: estatu horren ekonomia kapitalistak bide oparoa izatea potentzia esportatzaile moduan, beti izan dadin hazkunde ekonomikoa langileen soldata-igoera baino handiagoa.

Eredu horrek, beste testuinguru batzuetan kopiazina izateaz gain, muga historikoak ditu. Lehengaiak ez dira infinituak, eta industria kapitalistek goia jotzen dute beti, ondoren gainbeheran hasteko. Horixe bera ari zaio gertatzen eredu eskandinaviar idealizatuari azken hamarkada eta erdian: herrialde horien industria-salgaiak inportatzen dituzten herrialdeak krisian sartu ziren 2008tik aurrera, Asian lehia-polo berriak finkatu dira, eta biztanleria aktiboa zahartzen ari da belaunaldi-errelebo argirik gabe.

Hala ere, gaurkotasan handiko gai batean jarri nahi nuke arreta: immigrazioaren kudeaketan. Eredu suediar eta eskandinaviarra soilik ekoizpen-lehiakortasun handia eta biztanleria nahiko txikia duten estatuetan da aplikagarria. Bigarren hori aldatzen hasi zen 2015etik aurrera, errefuxiatuen krisi deitzen dioten horrez geroztik immigrazio-fluxuak gero eta handiagoak izaten hasi baitziren.

Eredu suediarrek edo finlandiarrek funtziona dezan, herrialde horiek immigrazio-tasa txikiak bakarrik onartu behar dituzte. Biztanleriaren oreka ezinbestekoa da soldata altuko eta dirulaguntza sozial orokortuko politika bat izateko, eta immigrazioak aldatu egiten ditu oreka horiek. Eredu suediarra edo eskandinaviarra duen estatuak dirulaguntza sozialak ematen ditu, baina justu-justu beharrezkoa den neurrian. Hori dela eta, immigrazioaren eraginez gastu soziala handitu behar bada hura kudeatu eta pertsona horiek integratzeko, eredu puskatu egiten da. Eta horrela agertzen da iparraldeko eredu orain arte goretzien B alde: haien erreakzio xenofoboa.

Izan ere, eskuin muturra Europa hegoaldean eta erdigun-ean gaur egun duen bultzada irabazten hasi baino askoz le-

henago, eskuin mutur xenofoboaren igoera sozial eta elektoral- la dagoeneko emana zen herrialde eskandinaviarretan, haien eredu sozialaren gainbehera aprobetxatuz. Azken urteetan, sozialdemokraziak indar politikoa errekuperatu badu ere, era irekian xenofoboak ziren alderdi horien hainbat proposamen bere programan txertatuz lortu du suspertze hori. Herrialde eskandinaviarrak abangoardian egon dira dirulaguntzak eta errefuxiatuei arreta emateko laguntzak murrizten, bai eta asiloa eta herritartasuna eskatzeko zailtasunak jartzen dituzten politikak ezartzen ere.

Azken hauteskundeon ondoren Finlandian eta Suedian eskuineko gobernuak daudelarik, migrazioa nabarmen zigortzen duten politikak ezartzeko baldintza sozialak dagoeneko emanak daude: Finlandiak, aurtun, Errusiarekiko eta Suediarekiko mugetan eskatzen diren asilo-eskaera guztiak ukatzea proposatu du, eta, besteak beste, herrialdea boluntarioki uzten duten immigratzaileei kalte-ordain bat ematea proposatu du.

Herrialde eskandinaviarretako paradisua sozialdemokratek beren benetako aurpegia erakutsi dute munduko panorama geopolitikoko gorabeherak gertutik ukitu dituztenean. Ez da kasualitatea azken bi urte hauetan Finlandia eta Suedia NATO-n sartu izana, eta, hala, alde batera utzi izana harreman internazionalen historikoki izan duten izaera neutroa. Kapitalismo globalean arrakasta duten eredu guztiak bezalaxe, bitarteko guztiakin defendituko dute beren kokapen pribilegiatua. Baina, gogoratu: denok ezin gara suediarrek izan, guztiok ez baitugu fitxa berberekin hasi kapitalismo izeneko xake-partida hau. ●



HISTORIA
ERREPORTAJEA

Iraultza eta kontrairaultza Finlandian

*

Jon Larrabide



1905eko iraultzak inpaktu propioa izan zuen Finlandian. XIX. mendearen hasieran Inperio Tsaristaren parte izatera igaro arren (Fredrikshamn Itunaren bitartez), Finlandiak nolabaiteko autonomia politikoa izan zuen errusiar administrazioaren antolaketa-ereduaren baitan, besteak beste parlamentu, armada propioa eta txanpon propioa. Edonola ere, XIX. mendearen amaieran, Alejandro II.ak iritziz aldatu, eta Finlandiaren errusifikazioaren aldeko apustu politikoa egin zuen; aipatutako autonomia erlatiboari erasotu zion, ordura arte finlandiar gobernuari behin-behinean emandako zenbait eskumen kendu zion (parlamentuaren eskumenak murriztu egin ziren), eta Finlandiako botere egituren errusifikazioa bultzatu zuen. Funtzionarioak errusieraz jakitera behartu zituen; alkateak, probintzietako gobernadoreak eta polizia kargugabetu eta postu horietan errusiar herritarrak jarri; finlandiar tropak errusiar armadaren baitan integratu zituen; eta Bobrikov jeneral errusiar nazionalista izendatu zuen Finlandiako gobernadore. Halaber, kanpaina politikoa horrek adar errepresiboa izan zuen bere baitan. Eskubide zibil eta politikoa batzuk kolpean ezabatu zituen gobernu zentralak, hala nola adierazpen askatasuna eta biltzeko eskubidea. 1899. urtean tsarrak Finlandiaren autonomia politikoa ezabapena dekretatu zuen. Itotasun erregimen horrek abagune ezin hobea ireki zuen Finlandian errusiar gobernu tsaristaren aurkako sentimendu bat zabaltzeko, gako nazionalistetan gauzatu zena.

XIII. mendean Suediak Finlandia kolonizatu zuenetik, bi espazio nagusi bereizi ziren finlandiar gizartearen baitan. Elite finlandiarrek, Suediaren botere egituretan integratuta zeudenez, posizio horren arabera ulertzen zuten beren naziotasuna. Kontrara, finlandiar herri xeheak ohitura propioagoekin jarraitu zuen, nolabait esateko. XIX. mendean nazionalismo finlandiarraren goraldi bat izan zen, suediar eta errusiar nazionalismoen aurka garatu zena. Dena den, testuinguruaren xehetasunak tarteko, nazionalismo birfundatu horrek nazionalismo suediarrekin bat egin zuen aipatutako errusifikazio prozesu horren hastapenetan (anexioaz geroztik gertatu zen hori, baina bereziki prozesuaren areagotze fasean).

XX. mendearen hastapenetan, testuingurua aldatzen hasi zen. Errusiar Inperioaren kontraesanak gero eta indartsuagoak bilakatu ziren, baita haiekiko kontrakotasuna adierazten zuten indar politikoak ere. AEBra besteak beste kausa ekonomikoengatik emigratutako finlandiarrek inportatu zuten teoria sozialista herrialdera. XIX. mendearen amaieratik, Finlandiako sozialdemokraziak hazkunde nabarmena izan zuen Errusian zein munduan garatzen ari zen testuinguruaren ondorioz, masa-alderdi bilakatzeraino (1903an eratu zen formalki, Erfurteko programa inspirazio hartuta). Masa izaera horrek, garai hartako alderdi sozialdemokra-

ta askorenak bezala, instituzio propioen sare zabal batean zuen oinarria, lan kulturalerako operazio base izango zena (bi munduen teoriarekiko koherentzia garatu zen SDPre jardunbidea). Hala ere, kontuan hartu beharra da alderdi horrek izaera parlamentarioa zuela nagusiki. Sozialismoranzko trantsizio baketsua ortzi-mugan, estrategia parlamentarioan murgildu zen, are alderdi liberalarekin zenbait harreman garatzeraino.

XIX. mendearen amaieratik, Finlandiako sozialdemokraziak hazkunde nabarmena izan zuen Errusian zein munduan garatzen ari zen testuinguruaren ondorioz, masa-alderdi bilakatzeraino

Testuinguru hartan, 1905eko iraultzaren oihartzuna heldu zen Finlandiara. Mende hasiera hartan Europa mailako alderdi sozialdemokratak hartzen ari ziren norabidearen kontrara, Alderdi Sozialdemokrata erradikalizatu egin zen Finlandian. Horrez gain, Alderdi Sozialdemokratari zein haren inguruan orbitatzen zuten sindikatu eta bestelako eragileei bultzada handia eman zieten aipatutako baldintza objektiboek. Greba orokor baten deialdia egin zuen langile mugimenduak, eta finlandiar herriaren (eta haren ordezkari politikoa askotarikoen) babesa lortu zuen. Iraultzaren fase haren produktu behinena "Azaroko Manifestua" izan zen. Tsarraren erabaki haren bitartez, Finlandiak autonomia politikoa erlatiboa bereganatu zuen berriro ere, eta sistema parlamentario baten baitan antolatu zuen bere sistema politikoa.

Horrek bi ondorio politikoa nagusi izan zituen. Alde batetik, langile masa zabalak iraultzaren aldera ekarri zituen. Errusiatik zetozen haizeen berotasunari harrera ona egin zien finlandiar herriak, eta ordura arte nazionalismo finlandiarrak bereganatua zuen espazio politikoa kolorez aldatu zen, gatazka sozialaren ardatza norabidez aldatu zen heinean. Ordea, abagune berriak eragin handia izan zuen baldintza politikoetan, Alderdi Sozialdemokrataren ameskeria demokratiko parlamentarioak sakontzea eragin baitzuen aldi berean. Ameskeria edo ilusio horren arabera antagonismo soziala bideragarria zenez parte-hartze parlamentarioaren bidetik, ordutik aurrera taktika politikoaren

modalitatea aldatzearen aldeko apustua egin zuen sozialdemokraziak. Lehen faktorearen, hau da, langile masak iraultzaren alde lerratzearen itsasbeherak hauspotu egin zuen, gainera, sineskeria hori. 1907rako, alderdiak 100.000 langile zituen (biztanle bakoitzeko militante kopuru handiena zuen alderdia izan zen garai hartan) eta, bide horretan, 1916. urterako, herrialde bateko parlamentuan gehiengoa lortu zuen lehen alderdi sozialdemokrata izan zen. Historiaren gorabeherak, alabaina, arrazoia edo pisua ematen zioten lehen faktoreari, une hartan behintzat. Tsarrak egindako iraultza-osteko kontzesio horiek ibilbide laburra izan zuten, eta 1908. urterako Finlandia errusifikazio fase berri batean sartu zen.

Bitarte horretan, Lehen Mundu Gerra hasi zen. Hamarkada luzez nazioartean garatutako kontraesanek nazio-esta-

tuen mugekin topo egin zuten, eta ordura arte inoiz ezagutu gabeko gatazka beliko batean murgildu zen munduaren zati zabal bat. Gatazka hark ondorio ekonomiko eta sozial sakonak utzi zituen bertan zuzenki edo zeharka parte hartu zuten herrialdeetan. Finlandiaren kasua ez da zentzu horretan desberdina. Herrialdeak oztopoak topatu zituen aurreko mendeko 70eko hamarkadaz geroztik izaten ari zen garapen industrialaren bidean. Nazioarteko merkataritza-fluxuen funtzionamendu normala apurtu egin zen, lan kaleratze masiboak izan ziren ekonomiaren desoreka orokorraren ondorioz eta oinarritzako baliabideen eskasia nagusitu zen. Baldintza orokor horiek osatu zuten Urriko Iraultzaren testuinguru orokorra, eta testuinguru hori kolpatzera zetorren iraultza.

Horrek bi ondorio politikoa nagusi izan zituen. Alde batetik, langile masa zabalak iraultzaren aldera ekarri zituen. Ordura arte nazionalismo finlandiarrak bereganatua zuen espazio politikoa kolorez aldatu zen, gatazka sozialaren ardatza norabidez aldatu zen heinean. Alderdi Sozialdemokrataren ameskeria demokratiko parlamentarioak sakontzea eragin baitzuen



Hala ere, alderdiaren baitan ez zen homogeneotasun garbirik egon apustu iraultzailearen harira (ez prozesu iraultzailearen nolakotasun orokorrari dagokionez, ez eta aspektu partikularrei dagokienez ere, adibidez gerrarekiko aurkakotasunari dagokionez)

Gertakizun horiek pasarte berri bat ireki zuten Finlandia iraultzailearen kontakizunean. Otsaileko iraultzak ezustean harrapatu zuten Finlandia. Berehalakoan, errusiar ofizialak zein aparatu burokratikoko kideak kanporatu zituzten, lurzoru finlandiarrean aurkitzen ziren errusiar armadako kideek Petrogradeko sobietaren aldeko posizioa hartu zuten, eta polizia finlandiarra deseginda, herri milizia baten eraketaren aldeko apustua abiarazi zuten. Iraultzaren desbideraketa hark, halaber, aukera berri bat ireki zuen alderdi sozialdemokratako adar erradikalarentzat. SDPk, gertakariaren eboluzioaren eraginez, boltxebikeen aldeko postura garatu zuen, nahiz eta lehenagotik zetorren posizio hori. SDPk boltxebikeen aldeko postura garau zuen, haiek zirelako gatazka sozialaren ordezkartza politiko orokorra eta autodeterminazioaren aldeko indar politiko nagusia. Gerra-testuinguru batetik nolabaiteko gatazka sozialeko testuinguru bat sortzearen hipotesiak Finlandian ere presentzia eskuratu zuen horrela. Hala ere, alderdiaren baitan ez zen homogeneotasun garbirik egon apustu iraultzailearen harira (ez prozesu iraultzailearen nolakotasun orokorrari dagokionez, ez eta aspektu partikularrei dagokienez ere, adibidez gerrarekiko aurkakotasunari dagokionez), eta alderdiaren baitako hausturak balizko iraultza baten ilusioa zapuztu zuten. Edozelan ere, Errusiar Inperioaren baitako testuinguru politikoaren eraginez, langile antolakuntzak izugarritzko hazkunde fasea izan zuen maila kuantitatibo zein kualitatiboan (momentuan momentuko proposamen politiko taktikoen eragin handia izan zuten horretan, Zimmerwaldeko mugimendura batzeak edo nekazaritza-erreformak, kasu). Paraleloki, burgesia finlandiarrek ere bere burua armatzearekin zion, langile ofentsiba horri aurre egiteko asmoz.

Otsaileko Iraultzaren eraginez, Errusiar Inperioaren barne politikako zenbait kontu ez ezik, Finlandiaren egoera ere

aldatu egin zen. Behin-behineko gobernuak zenbait aldaketa aurrera eramateko promesak mahaigaineratu zituen, nahiz eta ez zen haiek erabat betetzera inoiz ailegatu. Gainera, batetik, testuinguru orokorrak okerrera egiten jarraitu zuen, hornidura-arazoak izan ziren Finlandian eta gosea hedatu zen. Bestetik, autodeterminazioaren aldeko borroka hauspotu zen berriro ere, espektro politiko zabal baten baitan gorpuztuta (ezkerreko alderdiek Finlandiaren balizko independentzia estatu sozialistaren eraikuntzarako aurrerapauso moduan proiektatu zuten; kontserbadoreek eta liberalek, aldiz, burgesia atzerritarrekiko botere kuotak handitze-ko modu bezala). Kaosa nazioartean, kaosa Errusian, kaosa Finlandian. Egoerak eztanda egiten jarraitzeko baldintzak emanak zeuden, berriro ere.

Abagunearen gorabeherak tarteko, uda aldera beste inflexio puntu bat ezagutu zuen prozesuak. SDPk, parlamentuan zuen gehiengoa probestuz, Finlandiaren autonomia-maila handitzearen apustua mahaigaineratu zuen (barne politikari lotutako kontu guztiak parlamentuaren esku uztea). Gobernu zentrala, hala ere, ez zegoen prest horrelakorik onartzeko. Kerenskiren mehatxua aitzakiatzat hartuta, parlamentua disolbatu zuten liberalek eta kontserbadoreek, eta hurrengo hauteskundeetan gehiengoa lortu. Gertakari horrek ordura arte horrenbesteko sineskortasunez mantendutako taktika parlamentarioaren bideragarritasuna zalantzan jartzera eramane zituen sozialdemokratak, are parlamentua uzteraino. Posizio aldaketa horren eskutik, gainera, aurrerapauso gehiago eman ziren boltxebikeekiko gerturapen prozesuan.

Dena dela, luzaroan egosten ibili ondoren, urrian gertatu zen baldintza horien eztanda definitiboa. Errusian jazotako iraultzak inpaktu zuzena izan zuen Finlandian. Gobernu zentralaren figura ezabatzearekin batera, finlandiar elite lokalek ordura arteko babesak galdu zuten. Polizia ofizialaren figura de facto ez zen existitzen. Haren ordeze, herritarrek osatutako miliziak gorpuztu ziren han eta hemen. Burgesia finlandiarrek bereari ekin zion, eta Guardia Nazionala fundatzearekin ekin zion (nekazari eta ikasleek osatutako konposizioa zuen gehienbat). Sozialdemokraziak gauza bera egin zuen Guardia Gorriarekin. Prozesu horren eskutik, garaiotan Finlandian aurkitzen ziren soldaduek Iraultza Boltxebikearen aldeko posizioa hartu zuten Alderdi Boltxebikearen babesaz. Paraleloki, langile protestak loratu ziren herrialdean zehar. Alabaina, kasu horretan sozialdemokraziak zapaldu zuen prozesuaren balazta; izan ere, superstizio parlamentarioaren irauteak zalantzan eragin zien momentua egokia ote zen.

Horiek horrela izanik ere, langile masek grebara jotzea erabaki zuten (garai hartako finlandiar langileriaren ia %80), eta greba horrek azkar batean bilakatu zuen faktore kuantitatiboa kualitatibo. Masa iraultzaile haren bultzadak kutsatu egin zituen alderdi sozialdemokrataren baitako



ezkerreko sektoreak, eta, grebak aurrera egin ahala, zenbait eraikin estrategikoren okupazioa eta mandatarari burgesen atxilotetak eramane zituzten aurrera Guardia Gorriaren laguntzaz (hau beren-beregi hiriguneetan gertatu zen, landa-inguneetan guardia nazionalak, indar kontrairaultzaileen miliziak, indar korrelazio positiboa baitzuten). Nolabaiteko botere bikoitzeko egoera bat zabaldu zuen Finlandian greba horrek: boterea hartzearen inguruko norgehiagoka sortu zen, *status quo*aren eta iraultzaren arteko talka bat, eta bietako batek baino ezin zuen iraun. Alderdi Sozialdemokratak bere aletxoak jarri zuten prozesuaren fase horretan. Finlandian bizi zen krisi egoerari aurre egiteko, larrialdiko programa bat argitaratu zuten, indarrean egon zena langileria boterera iritsi arte. Zalantzan jartzekoa da, ordea, SDPk nola ulertzen zuen ekarpen horren izaera, zuzendaritza sozialdemokratak bere burua behartuta ikusi baitzuen baldintza subjektiboen gordintasuna maila diskurtsiboan pibotatzera. Iraultza gauzatzeko momentua beti zen beranduago, edo bestela esanda, itzarotea zen, haien ustez, iraultza egiteko modu eraginkorrena. Ez da harritzekoa. Horixe izan baitzen garaiko pentsamendu ofiziala.

Nolabaiteko botere bikoitzeko egoera bat zabaldu zuen Finlandian greba horrek: boterea hartzearen inguruko norgehiagoka sortu zen, status quoaren eta iraultzaren arteko talka bat, eta bietako batek baino ezin zuen iraun





Oasi iraultzaile horren itxurakeria edo izaera engainagarria, ordea, esplizitu bilakatu zen, moderatuek prozesuaren gidaritza hartu, eta atzera botatzea erabaki baitzuten Helsinki greba-kontseiluak botere hartzearen alde aldarrikatutako apustua. Edozelan ere, garai hartan konstantea izan zen zuzendaritza politikoaren euste lanaren eta langile masen bultzada iraultzailearen arteko tentsioa; bi indar horien arteko pulstua ez zen, ordea, horren sinpleki lerratu zuzendaritza moderatuaren aldera. Iraultza prozesuak aurrera egin zuen. Urtarrilean Gerra Zibila abiatu zen, eta Finlandia bi zona politikitara banatu zuen. Alde batean, langile masak, nazioarteko zein maila nazionaleko azken urteetako borroka luzean hoztutakoak. Bestean, burgesia, bere tresna eta arma propioekin, aipatutako Guardia Nazionalak indartzera etorri baitzen Guardia Zuriaren konstituzio eta instituzionalizazio prozesua. Hiri nagusiak gorritz tindatu ziren, landa-ingunea zuriz. Haizeak, kasu horretan, bandera zuriaren alde egin zuen putz, ordea. Urriaren iraultzaren berme bezala jardun zuten soldadu errusiarrak Errusian zeuden honezkerok, Guardia Gorrien ofizialitatea ez zegoen bereziki trebatuta auzi militarretan, indar gorrien baitan izaera nazionalistako tentsioak zeuden, gaitasun armamentistikoaren alorrean Errusiarekiko mendekotasun handia zuten. Indar gorrien ahuldadearen aurrean, kontrara, indar kontrairaultzaileak txanponaren beste alde izan ziren alderdi gehienetan. Gainera, finlandiar erreakzioak Alemaniaren laguntza jaso zuen. 1918ko maiatzerako, indar kontrairaultzaileek eskuratu zuten garaipena. Sozialistentzat, porrota errepresio-bolada sakon baten eskutik etorri zen. Gobernuak, bestelako taldeen laguntzaz, 80.000 sozialista inguru atxilotu zituen, haietako batzuk erail, eta kontzentrazio esparruetara bidaliko dira beste hainbat. Hainbat sozialistak Errusiara egin behar izan zuten ihes. Ordena berrezarri zen Finlandian.

Gerra Zibilaren ondorio nagusia, edonola ere, potentzia iraultzailearen aukera-baldintzen ezabapena izan zen. Hein batean, erresistentziaren ezabapen fisikoak eman zion horri bide, baina langile mugimenduaren baitako desadostasunek ere izan zuten zeresanik prozesu honen baitan. Luzaroan alderdi sozialdemokrataren baitan joera politiko ezberdinak elkarrekin bizi izan ziren arren (horrek eragina izan zuen prozesuaren linealtasun faltan eta haren abiaduraren, nolakotasunaren eta intentsitatearen bariazioetan), iraultza prozesuaren garapena etetea, apurketa gertatu zen alderdiaren baitan. Aldi berean, Alemaniaren meneko monarkia bilakatu zen Finlandia (gerra bukatuta sortu zen senatuan, monarkikoek zuten gehiengoa, eta hori gerrak iraun bitartean jasotako laguntzaren faktura ere bazen neurri batean), erreakzioaren errealizazio politiko behinena, azken urteetako bolada iraultzaileak utzitako txingarrak itzaltzeaz arduratu zena. Kolpe errepresiboaren eskutik, gainera, errezel lodi bat bota zen Finlandian historiaren kontakizunaren alorrean.

Nazioarteko jazotako gertakizunak Finlandiaren oreka kolokan jarri zuten berriro ere. Inperio Zentralek errendizioa aurkeztu zuten Ententearen aurrean. Alemaniako egoera ezegonkorrak (gerraren gorabeherak eta tentsio iraultzaile tarteko) beste aldeketa batzuk eragin zituen Finlandian. Alemaniaren tropek alde egin zuten herrialdeetik, eta Federiko printzeak tronua utzi zuen. Aldaketa horien ondorioz, Finlandia errepublika independente bilakatu zen, Entente herrialdeen eredu politikoari jarraituz eta AEBren eta Britainia Handiaren oniritziaren babespean. Herrialdeak lehenagotik bizi zuten krisialdiaren inguruan, gauza gutxi. Ekonomiak, lehenagotik egoera kaskarrean zegoenak, izugarritzko kolpea jaso zuen Gerra Zibilean, eta, haren ondotik, Finlandiar ekonomiak, Alemaniarekiko menpekotasunaren eraginez, hamarkada erdi inguru behar izan zuen hala moduz errekupezteko.

Gerra Zibilaren ondorio nagusia, edonola ere, potentzia iraultzailearen aukera-baldintzen ezabapena izan zen. Hein batean, erresistentziaren ezabapen fisikoak eman zion horri bide, baina langile mugimenduaren baitako desadostasunek ere izan zuten zeresanik prozesu honen baitan

Testuinguru horretan, indar politiko moderatuek hartu zuten Finlandiaren lema. Alde bateko zein besteko moderatuek, garaiaren sen iraultzaileari entzungor eginez, Finlandiak behinola galdutako ongizatea berreraikitze konpromisoa oinarri hartuta egin zuten lan. Ordena nazionala iraganeko notekin berreraikitzen saiatu ziren

Testuinguru horretan, indar politiko moderatuek hartu zuten Finlandiaren lema. Alde bateko zein besteko moderatuek, garaiaren sen iraultzaileari entzungor eginez, Finlandiak behinola galdutako ongizatea berreraikitze konpromisoa oinarri hartuta egin zuten lan. Ordena nazionala iraganeko notekin berreraikitzen saiatu ziren. Horrela adierazten dute, gainera, gerrarteko garaian zehar gobernatu zuten gobernuen konposizioek. Hori ez zen inolaz ere salbuespena, Europako hango eta hemengo gobernuak kolore ezberdinetako nota itzalduek okupatu baitzituzten. Neurri batean, gerrarteko garaiaren lehen hamarkada (gutxi asko) demokrazia liberalen garaia izan zen, I. Munduko Gerran garaile irten ziren herrialdeetan behintzat. Alabaina, faxismoaren askotariko adierak bereganatu zuten, neurri batean, garaiko protagonismo politikoa. Gerran galtzaile izan ziren, gerraren ondorioek galarak ekarri zizkieten edo gerra ondoren galduta aurkitzen ziren herrialdeetan sekulako garapena izan zuten tendentzia kontrairaultzaileek. Alemanian, Italian eta Espainian, besteak beste, demostratu zuten haiek zirela tresna eraginkorrena ordena bat ezartzeko.

Zentzu horretan ere, Finlandia ez zen inolako oasia izan nazioarteko testuinguruari dagokionez. Gerrarteko garaiaren ezaugarri behinenez beren isla propioa izan zuten herrialde eskandinaviar horretan ere. Finlandia, Europako beste herrialde asko bezala, krisi ekonomiko sakon batean sartu zen,

eta horrek ezegonkortasun politiko eta sozial larria ekarri zituen. Harreman sinbiotikoa izan zuten krisi ekonomikoak eta krisi politiko eta sozialak, eta, egoera bideratzeko, beharrezkoa izan zen alde batetik zein bestetik bultzatzea, elementu bakoitzak bestea era egokian askatzeko gakoak gordetzen baititu. Finlandiako kasu partikularra ulertzeko, kontuan hartu behar da Gerra Zibilaren osteko errepresioak izan zuten izaera duala. Orainaldian gauzatzen zen errepresio horrek iraganera begiratzen zuen alde batetik, urte luzez garatuz joan zen prozesua kolpetik mozteko helburuz. Baina, bestetik, etorkizunean pausatzen zuen begirada, hain justu, langile antolakuntzaren oinarriak errotik ezabatzean etorkizunera begirako perspektiba iraultzailea ezabatzen baitzuen. Ordea, langile antolakuntzaren garapenak ere izaera bikoitza izan zuten. Iraultza antolatze eta garatzeko perspektiban eman zituen aurrerapausoak, baina bide horren baitan, baldintzak ezarri zituen etsaiaren aurrerapausoen kontentziarako. Gobernu finlandiarrak garbiketa-lan horietan jarritako enpeinuak abagune aproposa eraiki zuten iniziatiba politiko kontrairaultzailearen garapenerako eta ezarpenerako. Gerraosteko sistema politiko hori sistema parlamentarioaren izaera tranpatiaren adibide bat besterik ez da: parte hartze politiko unibertsalaren teatralizazioa. Egitasmo hori, noski, era egokiagoan gauzatu zen aurkari edo etsai politikoa ekuaziotik atera ondoren.

Finlandiaren kasuan, nolana ere, agenda politiko kontrairaultzailearen bide-orria ez zen alderdi faxisten bidetik joan. Gerraosteko garbiketa era eraginkorrean gauzatu, gatazka politikoaren gaineko errelatoa inposatuta, Finlandiaren proiektu nazionalaren garapen fase berrirako oinarriak jarrita, burgesia finlandiarrak bazuen tresna nahikorik koordinada liberaletan mantentzeko ordena. Kontuan hartzekoa da, gainera, gerra zibilaren esperientziak beta eman ziola burgesiari kontraesan antzeztuak alde batera utzi eta, iraultzaren mehatxuaren aurrean, bloke unitario errealean moduan gorpuzteko. Finlandiako errealtate partikular horretatik jaio zen estatuak, zentzu horretan, faxismoak eskaintzen zituen bermeak modu "naturalean" barne hartzeko gaitasuna izan zuten. Erregimen parlamentarioa izan zen formalki, eta parte hartzearen unibertsaltasun faltsu horretan oinarritu zen haien gobernantzaren gakoak. Erregimen demokratikoa izan zen, baina izaera autoritariokoa. Gerra Zibilaren gertutasun historikoak eta Sobietar Batasunaren gertutasun geografiko eta politikoak lehen leerroan jarri zuten tendentzia iraultzaile oro zapaltzearen zeregina. Gerrarteko garaian zehar, beraz, nazionalismo sutsuak eta antikomunismoak batu zituen alde bateko zein besteko indar politikoak (langile mugimenduen antolakuntzaren espresio guztien aurkako jarrera oldarkor moduan ulertuta antikomunismoa, hau da haren zentzu zabalenean). Izaera kontserbadoreko gobernu bat izateaz gain, eskumen ugari eman zizkion Konstituzioak Finlandiako presi-

denteari; estatuburua izateaz gain, armadaren burua ere izan zen; eta eskumen zabalak zituen kanpo zein barne politikan.

Faxismoa ez nagusitu izanak ez du esan nahi, ordea, horrelakorik ez zenik egon. 1929an Lapua Mugimendua sortu zen Finlandian. Eskuin muturreko alderdi nazionalista bat zen. Gerra Zibilaren testuinguruan sortutako eskuadra antokomunisten garapenetik sortu zen alderdi hori. Hasiera batean, Finlandiako zenbait gunetan mugimendu komunista ematen ari zen aurrerapausoei oztopo moduan sortu zen, baina mo-

mentu batetik aurrera izaera paramilitarreko talde bilakatu zen, eta, urte batzuk pasa eta gero, alderdi moduan fundatzeko saltoa eman zuten. Gobernatzera heldu ez zen arren, aipatu behar da sekulako eraginkortasuna izan zuela aipatutako indar iraultzaileen ezabaketa-lanetan, zehazki liberal eta kontserbadoreen lan zikina egiten, beste hainbeste herrialdeetan bezala. Alderdi horrek, iraupen laburra izan zuten arren, gobernuko alderdientzat eraginkortasun handia izan zuten bizi zen artean.

Gerraosteko sistema politiko hori sistema parlamentarioaren izaera tranpatiaren adibide bat besterik ez da: parte hartze politiko unibertsalaren teatralizazioa. Egitasmo hori, noski, era egokiagoan gauzatu zen aurkari edo etsai politikoa ekuaziotik atera ondoren





ONDORIO BATZUK

Lehen Mundu Gerraren inguruko hamarkadetan historia parez pare egon zen zabalik. Testuinguruaren gordintasan garapenerako aukera ezberdinak gorde zituen bere baitan. Alde batean historiaren norabide kapitalista; nazio-estatuaren babespean jarduten zuten kapitalen arteko lehian idatzia zegoen, eta hamarkada batzuen buruan nazioarteko gatazka belikoan egin zuen eztanda. Bestean, bide-orri iraultzailea; saiakera-forman garatu zen, tokian tokiko espezifikotasun eta berezitasunekin. Finlandiaren kasua testuinguru horretan txertatzen da, eta, zentzu horretan, organismo politiko zehatzetan gorpuzten diren bi aukera horien arteko talkan idazten da haren historia ere, noski. Edonola ere, talka horren kontakizuna bataren eta bestearen asmatze eta akatsetatik abiatzen da, eta Finlandia ez zen egitate honetatik libre egon.

Finlandiako Alderdi Sozialdemokrataren posizio politikoak sekulako zeresana izan zuen horretan. Gatazka soziala baretzeko eta hura oreka-puntuetara bideratzeko obsesio konstanteak potentzialtasun iraultzailearen aurka egin zuen behin eta berriro

Zentzu horretan, abagune iraultzaileak bere momentua izan zuen Finlandian, baina tamalez ez zuen lortu bi tententzia historikoen arteko pultsua irabaztea. Zaila da seinalatzen zehazki zerk egin zuen huts, baina, nolahi ere, garbi dago bi indarren arteko talka dagoenean beharrezkoa dela bi aldeei behatzea. Kasu honetan, alde baten ahultasun organizatiboak bestearen indarguneekin egin zuen talka, eta masa iraultzaileak prozesuaren ateetan geratu ziren, trabatuta. Finlandiako Alderdi Sozialdemokrataren posizio politikoak sekulako zeresana izan zuen horretan; izan ere, apustu iraultzailea aurrera eramaten ari ziren langile masei eskua eman beharrean, prozesu iraultzailearen oztopo nagusi bilakatu zen haren puntu determinanteetan. Gatazka soziala baretzeko eta hura oreka-puntuetara bideratzeko obsesio konstanteak potentzialtasun iraultzailearen aurka egin zuen behin eta berriro.

Testuinguru horretan txertatzen da faxismoaren papera. Finlandiaren kasuan faxistak estatuaren gidaritza eskuratzera heldu ez ziren arren, neurri eta jardunbide autoritarioak eta antikomunismo sutsuak (faxismoaren baitako elementu moduan), bai eta alderdi faxistek ere, rol berezia izan zuten aipatutako gatazka horretan

Gerrarteko testuinguruari dagokionez, bi elementu nagusi azpimarratu behar dira. Hasiara batean bestelako planik egon ez arren, azkenerako errepublika demokratiko moduan osatu zen Finlandia. Horrek ez zion, edozelan ere, izaera kontserbadore eta autoritarioko herrialde bat izatea galarazi. Gerra amaitu zen momentutik aurrera, garbi geratu zen zein zen gobernu horrek iraultzarekiko eta iraultzaileekiko izango zuen jarrera, eta, neurri batean, printzipio berberen baitan garatu zuen bere jardunbidea hurrengo urteetan zehar ere. Potentzia iraultzailea zanpatzea izan zen gobernu finlandiarraren lehentasuna, eta beharrezko medioak erabili zituen horretarako. Nolanahi ere, garaiaren ezaugarri bezala uler genezake hori. Azken finean, iraultzaren potentzialtasunak zeharkatutako garaia izan zen XX. mendearen lehen erdialdea, eta, zentzu horretan, iraultzaren eta kontrairaultzaren arteko talka konstantean garatu zen, gertakari partikularretan eta lekuan lekuko prozesu askoren atzean ezkututzen den prozesu sakona baita. Testuinguru horretan txertatzen da faxismoaren papera. Finlandiaren kasuan faxistak estatuaren gidaritza eskuratzera heldu ez ziren arren, neurri eta jardunbide autoritarioak eta antikomunismo sutsuak (faxismoaren baitako elementu moduan), bai eta alderdi faxistek ere, rol berezia izan zuten aipatutako gatazka horretan. Finlandian, ordea, ordena parametro “demokratikoetan” ezartzeko gaitasunak bigarren planoan utzi zuen faxismo antolatua, eta bestelako jardunbide batzuetarako erreserbatu. Antzeko zerbait gertatu izan da bestelako esperientzia historiko batzuetan ere: faxismoa gobernura heldu aurretik, edo helduzera iritsi ez arren, lekuan lekuko gobernuentzat funtzionalak izan dira bateko zein besteko mugimendu faxistak. ●



Argitalpena

2024KO AZAROA

EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua

**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web

GEDAR.EUS

Sare sozialak

TWITTER ETA
INSTAGRAM

@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua

**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza

**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa

**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**

AZPEITIA

Lege gordailua

SS-01360-2019

ISSN

2792-4548

Lizentzia



